

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA



Esku morearen koordinazio protokoloa

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduna koordinatzeko Sakanako I. Lurralde-Protokoloa sinatu dute / 6-7



Mank-en Urdalurko ur tratamendu plantak 2,2 milioi hm³ tratatzen ditu urtero / 2-4

Arruazuko Udalak herrirako epe ertaineko plan estrategikoa egin nahi du aurten / 11

COVID-ak markatuta, Altsasuko Udalak zortzi milioi euroko aurrekontua onartu du / 9

Dinabidek Sodenako eta Nafarroako klusterretako ordezkarien bisita hartu du / 10

Lehen mailako Arretako osasun zerbitzua hobetzea eskatzeko bilkurak bueltan / 7

Sonia Alonso eta Udane Vergara Nafarroako 2. mailako Binakako txapeldunak dira / 16


Sutan dantza talde altsasuarra The Jungle Battle lehiaketan parte hartzen ari da / 21



Mikel Astiz Nafarroako Duatloi Kros txapelduna Altsasun; Peio Bergara beteranoetan / 18-19



Hesian, azken zikloaren amaiera / 22-23



"Grabitatearen indarrari esker iristen da ura etxeetara"

ARKAITZ IRIGOIEN BARANDIARAN UR ZERBITZUKO TEKNIKARIA

Urdalur uberKaren martxa bertatik bertara ezagutu ondoren, zikloa ixteko, erretenaren aldamenen dagoen Edateko Ura Tratatze Estazioa jo dugu. Han Sakanako Mankomunitatearen Ur Zerbitzuak ur hura edateko ur bihurtzen du

Alfredo Alvaro igoa SAKANA Sakanako Mankomunitateko Ur Zerbitzuan zenbat langile ari zarete lanean?

Lau langile gara. Baina gaur egun bost gaude. Bat jubilatzeaz dago eta haren partez beste langile bat sartu da.

Edateko Ura Tratatze Estazioan zein lan egiten dituzue?

Hainbat parametro neurtu behar dira, kloro mailak eta horiek

guztiak ez daitezela ez asko igo, ez asko jaitsi, ongi funtziona dezan. Garbiketarak egin behar dira, mantentze lanak... Beti dago zerbait egiteko. Lau filtro daude berez eta oraintxe bertan bat geldi dugu mantentze edo erreparazio lanetan gaudelako. Arazoren bat baldin badugu estazioan, hemen dena dago ez gelditzeko pentsatuta. Horretarako daude bypassak eta halakoak.

Lanak banatuta dituzue?

Bai, Sakanan, herriz herri lan gehiago dugulako eta denak ezin gara honutz etorri. Gehiago alde batera edo bestera, lanen arabera banatzen gara. Goizetan beti eguna antolatzen dugu.

Urteko egun eta ordu guztietan zerbitzua martxan dago?

Guztiok astelehenetik ostiralera lan egiten dugu. Baina astero gutako bat aste guztia zaintzen dago. Asteburuetan dena erreparatzea tokatzen zaio, herriz herriko datuak eta Urdalurkoak.

Ebroko Ur Konfederazioarekin harremanetan egonen zarete, ezta?

Egunero ez, baina, bai. Beraiek hor bulegoa dute eta edozein gauzarengatik beti gaude harremanetan.

Urdalurko uberkatik ura presio handiarekin etortzen da?

Bai, hemen garbitu ondoren, presio hori baliatuz, hemendik geratu dagoen biltegiara bidaltzen dugu. Hura altu dagoenez, handik Sakanako guztira bideratzen da ura. Handik etortzen den ura "gubernatze" presioa "hausteko" zerbait egin behar duzue?

Ez. Balbulak beraiek arduratzen dira ur korronte hori frenatzeaz. Eta tratamendu estazioan dena egonkortzen da, ura mantso gelditzen da. Hemendik ur biltegiara grabitate bitartez iristen da ura. Ur biltegi handi horretatik Sakanako guztira ez, baina gehienera bai, grabitatearen indarrari esker iristen da. Badaude puntu batzuk pumpak behar direla ura herrietako biltegiara erama-

2.200.000

Metro kubiko horiek ateratzen dira urtero, gutxi gorabehera, Urdalurko urtegitik Sakanako urrez hornitzeko.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com



GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika moderna

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea



tratamenduaren estazioa



teko. Baina gehienetara grabita-tearen indarrak iristen da. **Urak tratamendu plantan zer bide egiten du?**

Ura lehen putzu batera iristen da. Ur salto moduko bat dago eta hor nahasten dira kloroarekin, polikloruroarekin eta almidoia-ekin. Hori ura garbitzeko erabiltzen da. Handik bigarren putzu batera iristen da. Ur azpian mantso-mantso biratzen duen pala moduko bat dago eta produktuak eta ura nahasten laguntzen du, guztiak maila bera izan dezan. Produktuen eraginez, uretan dagoen zaborra bigarren putzutik koagulatzen hasita ateratzen da. Handik hirugarren putzura, dekantagailura pasatzen da ura bere kabuz, mantso-mantso. Dekantagailura koagulu edo maluta moduko bola batzuk iristen dira. Maluta horiek batzuk bestearekin itsastan joaten dira. Zenbat eta handiagoak izan pisu handiagoa hartzen dute, eta dekantagailuan ura gelditu dagoenez, zabor guztia hondoratzen da eta


ur garbia goian gelditzen da. Behean aldika konporta 30 bat segundoz zabaltzen dugu ur zikin hori ateratzeko. Atzera ere ixten da. Dekantagailu horren uraren irteera goiko aldean dago eta handik laugarren prozesura joaten dira, filtroak.

Lau filtro daukazuela esan duzu. Tratamendu estazio hau lau filtrotarako prestatuta zegoen. Hasiera batean hirurekin hasi ziren, baina laugarrena martxan dago. **Nolakoak dira hemengo filtroak?** Lau granulometriako silize hairearen bitartez iragazten du ura. Ura goitik behera handik pasatzean, gelditzen diren zikin txiki-txikiak kentzen ditu. Eta ura ia %100ean garbi ateratzen da. Filtroen irteerako ura punta batekin hemen dugun laborategira eramaten du eta han neurtzen dugu zer kloro kopuru duen, guk jakiteko gehiago edo gutxiago eman behar diogun. Hortik hemengo biltegi handira bidaltzen da eta handik Sakanara guztira banatzen da.


Konfederaziokoekin hitz egiten duzuen ura hargune batetik edo bestetik hartzeko?

Eurite handiak badaude urtegi guztia zikintzen da eta hor ez dugu asko egiterik. Ura beti urtegiaren goiko aldetik hartzen saiatzen gara, han baitago ur garbiena. Konfederazioak duen pontoitik. Baina uda pasatzen doan heinean, ura berotzen doa gaineko kapa hori. Eta bakteriarazkoak izan ditzake. Edo bakterien gaia areagotzen du. Udaren

Hurrengo orrian segi->>




Urdalurko uraren sarbidea




Kloroa, hipokloritoa eta almidoia botatzeko hodiak




Nahasketa putzua



Zikinkeria malutak egiteko putzua




Dekantazio putzuak




Lau filtroak




Filtroetako silizeak




Hautsitako filtroa



Analisi automatikoen makina




Filtratutako ur garbia



Filtroak garbitzeko ur eta aire hodiak



Hipoklorito eta kloro biltegiak



Almidoia botatzekoa eta ezkerreko eskailerak



Zikindutako ura garbitu ondoren gelditutako lohia



Unai Kintana Larraza eta Arkaitz Irigoien Barandiaran filtroaren azpian hura konpontzeko lanetan.

martxaren arabera, uda erdian edo bukaeran, ura beheko maila batetik hartzeko eskatzen diegu. Eta erdialdetik hartzen dugu. Nahiz eta pixka bat zikinagoa izan beti da freskoagoa eta bakteria kontuetan garbia-goa da.

Laborategia duzuela esan duzu. Zuek arduratzen zarete?

Laborategi txikia da, non badiren automatikoki doazen sentsoze batzuk. Bera neurtzen joaten da. Eta guk zein balore egon behar duten badakigunez, emaitza horiekin jokatzeko dugu, pixka bat gehiago, pixka bat gutxiago, edo ongi ateratzen den. Gainera, kloro maila egunero eskuz hartzen dugu ere. Kloroarekin tentuz ibili behar da. Horretaz aparte, Nafarroako Gobernutik ere nahi dutenean etortzen dira neurketa egitera. Eta zerbait arraro ikusten badute beraiek esaten dizute.

Etortzerakoan lohiak betetako obra edukiontzi bat ikusten dugu bide bazterrean. Zer da?

Dekantagailu horren banatze prozesu horretan, behean gelditzen diren maluta edo lokatz puska horiek ezin dira ibaira bota. Horregatik behartzen gaituzte araztegi bat izaten, ur zikin hori garbitzeko eta lokatza banatzeko. Ura nahiko garbi dagoenean ibaira bueltatzen dugu. Eta plantatik lohiak tobera batera bideratzen dira eta edukiontzi batean bukatzen dute.

Hemendik ur garbia biltegi handi batera doala esan duzu.

Bidea

Altsasu, Olatzagutia eta Zor-diko udalena da Urdalurra-ko bidea, "zulo" batean kokatuta dagoena eta zuhaitzez inguratuta. Langileek diote bidea gaizki dagoela eta, neguan batez ere, mantentze faltagatik arazoak izaten dituzte. Gainera, elurra egiten duenetan, zuhaitzen bat botatzen denean, haraino iristeko komeriak izaten dituzte. Batzuetan, zuhaitzen bat goi tentsioko argindar sare gainera erortzen bada, estazioa argindarrik gabe gelditzen da. Halakoetan, argindar sortaileekin joan behar izaten dute estazioa elektrizitatez hornitzera, Sakana urik gabe ez gelditzeko.

Tratamendu estazioan biltegi txiki txiki bat dugu, badaezpada eta garbiketetan erabiltzeko. Hemendik km erdira ur biltegi oso-oso handia dugu, estazioa geldituz gero, pixka bat irauteko modukoa. Baina kontsumitzen dugun ur guztiarekin egun bat edo gutxiago iraunen luke. Zeren ur asko erabiltzen dugu. Eta orain gehiago, COVID-19 garaian jarri diren igerileku guztiek.

Urdalurko sareak ura Satrustegira edo Zordira eramaten du, nola?

Grabitatearengatik iristen da haraino. Horrela funtzionatzeko kalkulatu dago dena. Nahiz eta herrien maila iritsi, herri batzuetan ura punpatzen da biltegi iristeko. Azken batean, ur biltegiak herri gainean daude, grabitatea baliatuz herria hornitzeko. Herriaren eta kokapeneraren arabera da hori.

Urdalurko ura herrietako biltegi-tara tratatuta iristen da?

Bai, estaziotik ura tratatuta ateratzen da. Baina hemendik ezin dugu herri guztietarako erregulatuta atera. Hemendik ateratzen den mailarekin gertuko herrietara ura ongi iristen da, eta ez da ezer gehiago egin behar. Baina, gero, herriz herri joan behar dugu, kloro maila ematen-edo, behar diren mailan mantentzeko. Horiek Estatuak jartzen ditu. Zaintzan dagoena arduratzen da. Eta hodiaren bat lehertuko balitz, edo beste edozer gauza, beti dago bat zaintza egiten. Edo laguntza beharko balu, beste lankideak hortik gabilta beti.

Eta horrelakoak askotan pasatzen dira?

Zer da asko eta zer da gutxi? Niretako asko.

Urriztan honen moduko beste estazio bat du Mank-ek, ezta?

Planta askoz ere txikiagoa da. Badiu gehigarriak, tankeak eta filtroak, baina hango eta hemengo filtroak ez dute batera zerikusirik. Askoz ere txikiagoak dira. Baina, azken finean, harez garbitzen duen filtroak dira eta lan

berdina egiten dute, nahiz eta itxuraz desberdinak izan. Han Iribasko iturburu batetik hartzen den ura garbitzen da, Irurtzun eta ondoko Arakilgo herriei emateko. Eta zergatik? Urdalurko hodia oraindik Irurtzunera iritsi ez delako. Satrustegiraino iristen da eta aurten dena ongi badoa Etxarrenraino luzatuko da. Moldaketa batzuk eginda Etxarren Urdalurko ura hartzen ari da. Baina orain hodia haraino luzatuko da. Irurtzunera iristea da asmoa.

Urdalurren ura urtegiakoa da eta Iribasen iturburukoa. Aldea dago?

Bai, nabaritzen da. Baina, azkenean, ura da eta prozesu berarekin garbitu behar da.

Urriztatik Irurtzunerako ur hodia behin baino gehiagotan konpondu da azken urteetan. Zergatik?

Bere garaian jarri zen hodia ibaitik oso gertu doa; ibaiari jarraika, mendian gora eta behera ez egiteko. Ibai ertzak badakigu zer diren: askotan lurra mugitzen da, hezetasunarekin halako gauzak izaten ditugu. Eta, bai, hodia behin baino gehiagotan izorratu zaigu. Eta, azkenean, arazoak.

Urdalurko hodia Irurtzuneraino iristean, zer gertatuko da Iribasko sarearekin?

Ez dakit. Nik uste dut mantenduko dela. Gauza da arazoren bat duzunean jokatzeko aukerak izatea. Eta biekin joko hori izanenu genuke zerbait gertatuz gero.

Hodian ur ihesak egoten dira?

Bai, asko. Lehenbailehen konponetzen saiatzen gara. Baina badaude

Faktura

Sakanako Mankomunitatearen uraren fakturan hiru kontzeptu finko pagatzen dira: hornidura kuota (ura etxera eramateagatik), saneamendu kuota (ura garbitu eta ibaira bueltatzekoagatik) eta ur kontagailuaren mantentzea. Hiru kontzeptu finko horiek urtero ezartzen dira. Ura garbitzeaz eta ubeldera bueltatzeko Nafarroako Gobernuaren Nilsa enpresa publikoa arduratzen da. Mank-ek Nilsarendako saneamendu kuotaren zerga biltzailearen lana egiten du, hau da, dirua jaso eta hari ematen dio, araztegiak egin eta mantentzera bideratu dezan. Mank-ek Nilsari pagatu beharrekoa metro kubikoen arabera da.

Fakturaren finkoa ez den kontzeptu bakarra ur kontsumoarena da. Etxebizitza edo lokaletan kontsumitu diren metro kubiko kopuruaren arabera pagatu behar izaten da. Mank-ek ordainketak egiteko ordainketa tarteak zehaztuta ditu, horren arabera pagatzen da. Hala ere, kontsumo batetik gora, metro kubikoa garestiagoa da. Neurri horrekin, gehiegizko kontsumoa ez sustatzeko.

ikusten ez diren ur ihesak eta konpontzea gehiago kostatzen direnak. Baina behin ihesa non dagoen jakinez gero, egunean bertan edo hurrengo egunean konpontzen saiatzen gara. Ur ihesak detektatzeko kontadoreak izaten ditugu eta, horrela, dakigu zenbat ur pasa den eta zenbat iritsi den. Eta horrek ihesa, pitzadura edo dena delakoa non egon daitekeen arrastoa ematen dizu. **Sakanan barna etxola batzuk daude. Horiek Ur zerbitzuarenak dira?** Bai. Hortik Urdalurko hodi nagusia doa, goiko ur hornidurako hodia. Etxola horietan giltza batzuk ditugu. Eta etxola horietan herrietarako ur harguneak daude. **Ur premiarik izan da sekula?** Zorionez ur asko dugun toki batean bizi gara. Eta ur falta denbora dezentean ez dugula izango uste dut. Baina asko nabari da. Udan, batez ere, gero eta kontsumo gehiago, igerileku gehiago... Azkenean, nabari da.



ASTEKOA

AITZIBER GRADOS

Txanpon baten miña ta biososen lotura

Txin-txin! Ohiko perkusioa. *Txin-txin!* Pote barruan sartu naute. Orain, isiltasuna.

Alde batera begiratzean nire aurpegietako bat islatuta ikusi dut leiar argizko edalontzian. Bestea buruz behera, ni bezalakoei begira. 21,25 milimetroko diametroa; 1,67 milimetroko lodiera eta 3,92 gramoko pisua; altzairuz eta kobrezko eta kantoil lauezko biribilak gara guztiak.

Baina ez daude ni bezalako bi. Itxura berdina dugu baina bakoitzak badu bestearengandik bereizten duen zerbait: egin duen ibilbidea. Beethoven-en bosgarren sinfoniaren soinu uhinei jarraiki: katanarru, patrika, esku, eta gainazal asko ezagutu ditugu, gutako bakoitzak bereak. Eta beharbada, bidean, topo egin dugu: diru zororen baten dantzaldian edo tabako makinaren esku itzulietan. Garagardo baten gonbitean. Supermerkatuaren atarian eske dagoenaren eskuetan. Pilota partiduetako apustuetan. Mezetako limosna poltsetan. Edo iturrietako ur azpitan.

ITXURA BERDINA DUGU BAINA BAKOITZAK BADU BESTEARENGANDIK BEREIZTEN DUEN ZERBAIT: EGIN DUEN IBILBIDEA

Sarritan, jaso nauten esku ahurrek bizia eman didate, eta nik, bakoitzari –nahi izan duen eran– bizia eman diet. Baina sakelan gabiltzanon artean, marjinatuenetakoa naiz; askotan lurrera erorita ere inork jasotzen ez duenetako hori. Ni bezalako txiki asko "handia" egiten dutela gogoratzen dutenean, hor bai, ni jasotzera makurtzen dira.

Eskerrak, bidean, hartu-eman soila baino gehiago izan naizen: jolasa, zoria, sekretua, zortea, mailegua. Azalera zirkularreko metal hutsa naizela ahaztu gabe.

Eta orain, bilduma. Nire lehenengo ediziotik, 1999-tik gaurdaino bidaiatzen egon naiz. Orain, bosgarren sinfoniaren lau mugimenduak eta ibilbidea burututa, ontzi honetan gaudenok ez dut uste kukua laster entzungo dugunik. *Txin-txin!* Bost xentimo jaurti dizkidate gainera.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Kanabisaren inguruko osasun kanpaina

SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUAK

Osasun Departamentuak 2019an ateratako kanpaina abian jarri du berriro kanabisaren kontsumoaren gaineko eztabaida soziala sustatzeko. Kanpainak *Kalamuak zure garunari eragiten dio. Ongi pentsatu duzu?* leloa du.

Kanpainak, biztanleria gazteari zein helduari proposatu nahi dio kanabisaren kontsumoaren normalizazio sozialari buruzko hausnarketa egiteko; batez ere, adingabeen eta gazteen osasunean dituen arriskuak gogorarazten ditu. Kanabisa zerbait naturala eta kaltegabea bezala ikusten eta kontsumitzen dela dio kanpainak, baina errealitatea beste bat dela; "droga ilegala da eta osasunerako arriskuak ditu".

Estatu mailan, urtero egiten den kontsumoen inguruko Estudes inkestaren azken datuen arabera, kanabisaren presentzia eta kontsumoa normalizatu egin da, eta Nafarroan kontsumoak goraka egin du azken urte hauetan, gutxi bada ere. Estatu mailan datuak konparatzen baditugu, altuxeagoak dira.

Esan ohi da kanabisa nerabeen garunaren etsairik okerrena izan daitekeela. Arrazoiak? Kanabisak eragin handiagoa du nerabeengan helduengan baino, haien garuna prestakuntza betean baitago eta ez delako 22 urte bete arte garatuko. Azken ikerketen arabera, garai horretan nerabeak bereziki kalteberak dira kanabisaren ondorioetarako. Nahiz eta epe motzean nolabaiteko euforia sortu, ohikoa da kanabisarekin

konzentrazioan, memorian, pentsamenduan eta arretan ondorioak izatea. Antsietatea eta interes falta ere sor dezake ikasketetan eta harremanetan, eta ohiko kontsumoa bada, adikzio arriskua ere badago.

Azaldutako guztiagatik adi egon behar dugu, eta nahiz eta kanabisaren kontsumoa gure gizartean zabaldua eta normalizatua egon, arriskuak hor daudela beti presente izan.

Behar beharrezkoa ikusten dugu kontsumoaren inguruan eztabaida soziala sustatzea. Batzuetan, helduek kontsumoa banalizatzen dugu eta horrek kontraesanak sortzen ditu nerabeengan eta arriskuak hartzerantz bultzatzen ditu.

Batetik, legalizazioaren aldeko mugimenduak, eta bestetik, arlo

terapeutikoan erabiltzearen onurak, guztiz nahasten dituzte nerabeak. Hain da horrela, askok legala dela eta bere erabilerak ez duela inongo isunik ezta osasunerako eraginik ere diotela. Hau gutxi ez balitz, beste faktore bat sartzen da desinformazio hori gehitzen duena: landare bat denez, naturala denez, ez duela izango inongo arriskurik pentsatzea. Naturala da bai, landarea ere, baina landare horren osagaiak, THC izenekoak, efektuak eragiten ditu eta droga baten ezaugarri guztiak betetzen ditu.

Prebentzio aldetik, beraz, bidali behar dugun mezua sendoa da: porroen kontsumo goiztiarrak sortzen dituen arriskuekin kontziente izan behar garela. Horregatik, kontuan hartuz kontsumo guztiak arriskuak dituztela... Zenbat eta beranduago eta zenbat eta gutxiago HOBETO.



OBJEKTIBOTIK



ifaki lizarraga
@inakili

Euritarra pasa da hemen eta elurra 1000m tik gora. Goietan 17zm 1000m ta Lizerrako portuben. 44i azken 24h ten.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika info@gkomunikazioa.eus
Ainhoa Etxeberria Pikabea gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

María Luisa Zelaia

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Iune Trecet Obeso maketatzaia@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Esku morearen koordinazio protokoloa

Arreta hobetzeko, 'Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduna koordinatzeko Sakanako I. lurralde-Protokoloa' sinatu dute udalak, Mank-ek, Gizarte Zerbitzuek, Osasun Etxeek, Osasunbidea eta Berdintasunerako Institutuak

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Festetan emakumeen kontrako indarkeria kasuren bat egonez gero, nola jokatu jakiteko protokoloak daude Sakanako zenbait herritan. Baina festa girora mugatzen ziren jarraibideak dira. Urteko egun guztietarako baliagarria den "Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduna koordinatzeko Sakanako I. Lurralde-Protokoloa" du ibarrak asteazkenaz geroztik. Altsasuko eta Sakanako Berdintasun Zerbitzuek gidatutako hainbat erakunderen elkarlanaren fruitua da protokolo hori.

Emakume izate hutsagatik indarkeria jasan duten emakumezkoak beraien bizitzak berregiten, ahalduntze prozesuan lagundu nahi du protokoloak. Horretarako, orain arte zegoena hobetuz, indarkeria egoeran dauden emakumezkoek arreta zerbitzu koordinatu egokia eskaini nahi zaie. Hori dela eta, protokoloa sinatu duten erakun-



Udalak, Mank, Gizarte Zerbitzuek, osasun etxe, Osasunbidea eta Berdintasunekoak.

deek koordinatuki lan egiteko antolaketa eta irizpide batzuk onartu dituzte. Baita konpromiso batzuk hartu ere: prestakuntza bulkatzea; Nafarroako Gobernuak baditu, baina egoera berezietan ekonomia baliabideak

beharko balira, haiek jartzea; espazioak eta giza baliabideak eskaintzea.

Bi Berdintasun Zerbitzuek dira protokoloaren arduradunak eta haiei dagokie koordinazioa. Sortu den koordinazio mahaia urtean hirutan elkartuko da, dagokion jarraipena egiteko. Bestalde, agirian jaso denez, emakumeen kontrako indarkeria salaketa bat jasoz gero, erakundeek protokoloa jarraituz, badakite norekin jarri beharko duten harremanetan. Izan ere, zerbitzu bakoitzean erreferentziatzeko pertsona bat izendatu dute.

Hiru arlo

Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Batzordeko lehendakari Aizaga Zeberio Petriatik azaldu zuenez, protokoloak hiru arlo ditu: osasun, gizarte eta polizia arloa. "Arlo bakoitzaren papera zein den, zein bide jarraitu eta koordinazio egiturak zeintzuk diren zehazten dira bertan. Esku hartze eredu oso eta homogeneo bat zehaztuz. Hortaz aparte, Sakanako udalak emakumeen kontrako indarkeria kasu larrietan eman beharreko erantzuna ere zehazten da".

Zeberio protokoloaren "eskalde ikuspegia" azpimarratu zuen, "Nafarroan lurralde izaera duen lehen protokoloa da (gainontzekoak hiri eta herrietakoak dira), honen konplexutasuna eta aldi berean aberasgarritasuna azpimarratu nahiko genuke". Protokoloa egiterakoan udalerrri txikien berezitasuna kontutan hartu dutela gaztigatu zuen. "Udalerrietako batzuk oso landa ingurukoak dira eta, horregatik, emakumeek bizi duten indarkeria hautematean eta indarkeria horri aurre egitean kontuan hartu behar izan da gizarte kontrola handiago dela eta horrek indarkeria estaltzea dakar askotan, beldurragatik edo lotsagatik".

Gaineratu zuenez, adineko pertsonen artean "indarkeria kronikoago bihurtu ohi da eta normaltasunez onartuago egon ohi da, bikote harremanean zein bikote harremanetik kanpo". Eta erakunde sinatzaileei "lurralde ikuspegia momentu guztian presente izatea" eskertu zien.

Benetako lana

Altsasuko Udalak 1992tik du Berdintasun Zerbitzua eta horretan aitzindaria da Nafarroan. Javier Ollo Martinez alkateak orain egindako bide "baliagarria" aitortu zion. Ollok gogorarazi zuenez, "duela 5 urte udalak indarkeria jasaten ari diren emakumeei arreta koordinatua emateko taldea sortu zen; han parte hartu zuten zerbitzuek eta profesionalek ireki zuten orain bete dugun elkarlana". Haien eta Sakanako zerbitzu guztien hausnarketatik emakumezkoen kontrako indarkeriari aurre egiteko lan arloak zehaztu zituzten. Honakoak dira: "profesionalen prestakuntza, lanaren koordinazioa, emakumeendako informazioa zabaltzea, gizarteari informazioa jakinaraztea".

Ollok gaineratu zuenez, "Sakanako egoera ezagutzea oso garrantzitsua zela esan zuten, ez bakarrik salaketak edo prozesu judizialak, baizik eta salatu gabeko indarkeria, isiltasunean jasotzen duten emakumeek eta askotan, beste arrazoi batzuenatik, profesionalek ezagutzen dutena". Altsasuko alkateak azaldu zuenez, "protokoloak horri irtenbide bat eman nahi dio, baina kontuan hartu behar dugu orain hasiko dela benetako lana: protokoloa garatzea eta, ziur

aski, garatze horretan aterako diren arazo berriei irtenbide berriak ematea".

Koordinazioaren garrantzia

Nafarroako Berdintasunerako Institutuko kudeatzaile zuzendari Eva Isturiz Garciak landa eremuan toki erakundeen arteko koordinazioaren garrantzia azpimarratu zuen, "fokua behar den tokian jarritz: indarkeria honen biktima eta haratik bizirik atera diren emakumezkoak". Toki erakundeen arteko koordinazioa "lan egiteko modu eraginkorragoa da". Eta, horregatik, Sakana "berdintasun politika publikoak lantzeko eta indarkeriari aurre egiteko garaian" aitzindaria dela aitortu zuen.

Baina erakundeen arteko koordinazioaz aparte, jendartea sentibilizatu beharra dagoela gaztigatu zuen Isturizek, "aurreratu dugun arren, egiteko asko dagoelako". Gaineratu zuenez, emakumezkoen kontrako indarkeriaren arloa "foru erakundeen betebeharra da toki erakundeekin koordinatzea, arreta eta prebentzio" arloetan. Gaztigatu zuenez, "toki erakundeek berdintasun eta indarkeria gaitan eskumenak dituzte". Horregatik, koordinatzeko premia dagoela nabarmendu zuen.

Pandemia betean protokoloa gauzatzeko lana egin izana goiraipatu zuen zuzendariak. Osasun egoerak "emakumezkoen kontrako indarkeria eta zaintza krisian fokua jarri du, gehiago nabarmendu araziz emakumezko askok, eta haien ardurapean dauden adin txikikoek, dituzten bizi baldintza zailak".

Isturizek esan zuenez, "emakumezkoen kontrako indarkeria emakumei eragiten dieten diskriminazio eta desberdintasunen ondorioa da. Horiei ikuspegi feminista duen berdintasun politikekin egin behar diegu aurre. Errealitatea eraldatu nahi badugu, hortik ekin behar da. Ezin da bakar-bakarrik arreta eskaini. Beti egon gintezkeen arreta eskaintzen. Eta beti izanen genuke arazoa".

UDALEK KASU LARRIETAN EMAN BEHARREKO ERANTZUNA ERE ZEHAZTEN DU PROTOKOLOAK



EGUN ON SAKANA
Goizero 10:00-12:00
Errepikapena 14:00-16:00
web bidez: www.guaixe.eus

beleixe 107.3 FM

Sinatzaileek lekukotzak entzun zituzten

Indarkeriatik bizirik atera diren Sakanako lau emakumezkoen lekukotzak irakurri zituzten sinadura ekitaldiaren aurretik, arduradunek haien premien berri izateko.

Indarkeria jasaten, ni?

"Harritu egin nintzen biktimaren akreditazioaz hitz egin zidatenean".

"Ez nuen nire egoera tratu txartzat hartzen, ez baininduen jotzen".

"Ez, eta gaur egun zaila egiten zait ikustea emakumearen aurkako indarkeriaren barruan dagoela. Ulertzen dut hala dela, baina emakumeen aurkako indarkeriaren 'biktima' gisa 'definitzea' kostatuko balitzait bezala da".

"Eta uste dut 'biktima' hitzaren konnotazio negatiboagatik dela; izan ere, ez erabiltzen saiatzen naiz. Eta hori da, hain zuzen ere, gizarte laguntza gehiago edo beste edozein motatako laguntzarik ez bilatzeko arrazoietakoa bat. Urte hauean guztietan diskreziorik handiena bilatu dut, hau ahalik eta pertsonalena bizitzea, uste dut ukatzeko mekanismo gisa, batez ere hasieran: pentsatzen ez badut, hitz egiten ez badut, azkar pasatzen bada... agian desagertu egiten da nire burutik eta gorputzetik. Baina argi dago ez duela horrela funtzionatzen: ukatzen duzun guztiak menderatzen zaitu... Bizitzan bezala, kosta egiten da zuri gerta dakizukeela sinestea; beraz, leku horretan ikusi eta izena jartzea prozesu psikologiko eta emozionala da, nire kasuan, luzea eta oraindik itxi ez den prozesua".

"Ez nekien zer gertatzen ari zen. Nire semeak ireki zizkidan begiak".

Informazioa, erabakiak eta autonomia

"Asko kostatu zait, baina bai; ez naiz hartutako erabakiez damutzen. Informazioak eragin handia du, baina erabakiak nireak izan dira".

"Bai, nire autonomia argia izan da; zerbitzuek autonomia hori ahalbidetu dute".

"Ez; erabaki asko hartu dira nireak izan gabe, eta nire iritzia eman dut. Ulertzen dut asmo onenarekin egiten dela, baina, guztiak ez badira ere, asko ez ditut nik bakarrik hartu, baizik eta nik zer egin nahi nuen jakinda hartu direla, nahiz eta hartutakoekin bat ez etorri. Gauza batzuk ez nekien nola edo hala egin zirenik ere, 'babesteko' ezkututzen zitzaizkidalako.

"Nire erabakietan autonomia izan naiz, nire egia jakitea nahi nuelako. Hasieran seme-alabengatik egin nuen, baina urte batean konturatu nintzen niregatik egin behar nuela, eta orduan salatu nuen".


Baliabideen koordinazioaz

"Okerrena pertsonatik pertsonara igarotzea da. Zergatik ez diote pertsona bat esleitzen kasu bakoitzari? Enpatia behar da".

"Oraindik, medikazioa eskatzeko osasun zentzora deitzen dudana bakoitzean, istorioa kontatu behar dut".

"BABES SOZIALA ETA BALIABIDEAK FALTA IZAN ZAIZKIT, FAMILIAK ESATERAKO, ASKO SUFRITU DU".

"GIZARTEAN EPAITUA SENTITZEN NAIZ... TRATU TXARRIK EGON BADA, ZERGATIK EZ DU LEHENAGO SALATU?"



Idolia Goikoetxea Gomezek eta Oihana Gallo San Romanek irakurri zituzten lekukotzak.

"Hilabeteak pertsona desberdinei gertaerak kontatzen ematea behin eta berriz, eta historia ezagutzean izandako erreakzioak ikustea... Koordinazio horren falta sumatu nuen beti, batez ere abokatu eta psikologoaren artean gustatuko zitzaizkideen, haiengana joan bainaz gehien. Kontua galdu nuen kontatu nuen aldiez. Baina horrekin sentiarazten zaituzten mina ere bizi izan dut".

Hortik pasa direnen laguntzaz

"Salaketa faltasuen gaiak pisu handia du. Prozesua oso gogorra da sozialki. Gizarteak ez du babesten salaketa jartzea

emakumeok etengabe justifikatu behar dugu geure burua. Irteteko prozesua gogorragoa da banatzeko prozesua baino".

"Berak sare sozial handia du herrian eta oso babestuta sentitu da. Kartzelatik irten zenean (ez zidaten jakinarazi irten behar zela), kalean aurkitzen nuen beti bere jendez inguratuta. Ni eta nire familia beti egon gara zalantzan".

"Benetan, ez dakit merezi izan duen. Batzuetan pentsatzen dut etxean jasaten nuen kalbarioa kontrola nezakeela, baina herrian jasan dudana gizarte zampaketa ezin dut kontrolatu. Herriaren epaiketa soziala jasanezina izan da".

Lehen Arretako osasun zerbitzua hobetzea eskatzeko bilkurak

Herritarrak eta osasuneko profesionalak mobilizatzerako deituak, asteazkenetan, 11:00etan, osasun etxeen parean

SAKANA

Nafarroako Osasun Plataformako (NOP) kideek uste dute Nafarroan gabezia eta gabezia handiak daudela Osasun Sistema Publikoan egiturari, "eta COVID 19 pandemiaren hasieratik, egoera larriagotu egin da, eta bereziki eragin dio Lehen Mailako Arretari". NOPetik azaldu dutenez, Osasunbideko profesionalen artean iritzia jaso ondoren ondoz ondoz zuzentzen dituzten, "pandemiak areagotu egin ditu gabezia larriak Lehen Mailako Arretan, eta gu bat gatz haiekin. Errealitate

horren aurrean, eta Osasuneko Zuzendaritza Nagusiak oraindik ez duenez aurkeztu 2020an aurkeztu behar zuten Lehen Mailako Arretarako Plana, asteko mobilizazioei berrekiteko beharra ikusten dugu, kolektibo, sindikatu, elkarte, legebiltzarreko indar eta gizarte osoak gizarteak behar eta merezi duen Lehen Mailako Arretaren benetako aldatetarik sustatu eta aktibatzeke zain, orain bere profesionalen gehiengoaren iritzia babesean". Horregatik, martxoko asteazkenetan biltzera deitu du.

2019, 2020 eta 2021 jaiotako haurrontzat Ordu-tegiak eta zerbitzuak aukeratu

Haurraren garapen integrala eta banakako erritmoak aintzat hartzen dituen proiektua



Garapena, helduekin harremana eta jolas librearen gure ardatz



Haur hezkuntzako profesional taldea etengabeko prestakuntzean Hezkuntza proiektu propioa eta berritzailea

Aurre-matrikula Martxoaren 1etik 15era Matrikula Maiatzaren 24tik 28ra

Arbizu eta Lakuntzako udal haur eskola Uhalde kalea z/g, 31839 Arbizu 948 567 009 info@kattuka.com www.kattuka.com



"Beikolarakoak altsasuar guztioi kalte egiten digu"

AITZIBER URIBE MARTINEZ DE EULATE BEIKOLARKO AUZOKIDEA

Auzoan familia bakarreko 29 etxebizitza egitea aurreikusten da. Bertan bizi direnek hasieratik erakutsi dute erabaki horrekin desadostasuna

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren martxoaren 15eko 127/2017 epaia betez, Altsasuko Udalak Beikolarako hirigintza Plan Berezia egin du. Planean jasotzen denez, Beikolarren dauden zazpi etxeak mantendu eta gainontzeko pabiloiak, txabolak eta lantegiak bota egingen dira. **Lur jabe baten auzibideak ekarri du udalaren kontrako epaia eta auzoa urbanizatu beharra. Zergatik jo zuen hark auzitegira?**

Altsasuko Udalak 2002ko Hirigintza Planean Beikolar auzoko lurrak hiri lur kontsolidatu gisa definitu zituen. Erabilera Plan Berezi baten bidez zehaztu behar zen. Auzibide baten ondoren, 2015ean Altsasuko Udalak nekazaritzarako eta abeltzaintzarako erabilera finkatu zuen. Lur jabe bat ez zegoen erabaki horrekin ados helegitea jarri eta 2017an arrazoia eman zioten epaileek. **Beikolar garai batean abeltzaintzara bideratuta zegoen, ezta?**

XX. mendeko 80ko hamarkadan azientza herritik ateratzera behartu zuten hara bideratu zituzten. Badakigu bizilagun batek granja bat eraikitzeke baimena eskatu zuela eta Beikolarren eskaini ziotela 90eko hamarkada aurrera joanda zela. Zorionez ez zuen egin eta ez dago arazo honetan.

Udaletxera joan zineten asteartean. Bai aurreko astean jasotako alegazio batzuk aurkezteko joan ginen. 581 helegite aurkeztu ditugu. Ikusarazteko gu bakarrik ez gaudela eta herriak ere babesten gaituela. Eskerrak eman nahi dizkiogu herriari bere erantzunagatik. Plataformako bizilagunak oso pozik gaude.

Helegite horietan zein arrazoi eman dituzte hirigintza planari kontra egiteko?

Helegite orokor bat izan da. Parte hartze proposamena egin zenean udalak bi proposamen egin zigun. Bat, eraikin guztiak bota-



Cesar Plaza, Emilio Rodriguez, Txaro Mtz de Eulate, Aitziber Uribe eta Isabel Borrega.

"EKONOMIA BIDERAGARRITASUN PLANEAN GASTU ASKO FALTA DIRELA IKUSI DUGU"

tzeta, hori guk ez dugu ikusten, etxebizitza botaz gero nora joanen gara bizitzera? Bigarren aukera, etxebizitzak mantentzea eta gainontzekoa botatzea. Ez zuen ez beste aukerarik ez beste proposamenik aipatu. Uste dugu beste proposamen batzuk egon daitezkeela.

Esaterako?

Guri eraikin guztiak mantentzea gustatuko litzaiguke, eta jarraitzea orain arte ibili garen moduan. Egia da auzoak nahiko gabezia dituela: zati bat asfaltatu gabe dago, argiteria publikoa duela 20 bat urte iritsi zen eta bidea nahiko kaxkar dago.

Horiek urbanizazio berri batekin konpondu litezke. Baina kooperazio sistemarekin pagatzea tokatzen zaizue.

Guk udalari eskatu diogu jakitea zenbat ordaindu beharko genukeen bizilagun bakoitzak baita

udalak ere. Zeren udalak Beikolarren lurrak ditu. Eskaera egin dugu jendeak ikus dezan erabakiak ez digula soilik guri kalte egiten, baizik eta altsasuar guztioi. Udalak aurkeztu duen ekonomia bideragarritasun planean gastu asko falta direla ikusi dugu. Horrekin ekonomia bideragarritasuna galtzeko arriskua du.

Zein gastu falta dira?

Beikolarren dauden hornidura sistemak (ura, argindarra eta telekomunikazioak) oso zaharrak dira, berriro beharko lirakeke. Baita herritik hara eramatekoak ere. Estolderia sistema, espaloiak eta kale berria egin beharko litzateke, urbanizazio berrian kale gehiago leudekelako, gaur egun lurzorua dena. Urbanizazio gastuak zehaztea falta dela uste dugu, udalak jartzen duena baino handiago izanen litzatekeela uste dugu. Eta lurzoruan buztin espansioa dago eta horrek eraikinak egiteko orduan prezioa igo egiten du. Buztin horrekin etxeak mugitu egiten dira eta zartadurak agertzen dira. Eta horregatik etxe berrietan zimentazio handiagoak egin beharko lirakeke. Ondorioz, etxeak egitea garestiagoa izanen da.

Zenbat balioko luke Beikolar urbanizatzeak?

Udalak pasa digun informazioa dugu. Horretan etxebizitzak eraikitzea barne daude eta zazpi milioi euro inguruko aurrekontuaz ari gara.

Etxebizitza berriak barne. Baina zuenak eraikita daude.

Ez dakigu oso ondo zer ordaindu beharko genukeen bakoitzak, udalak hori azaldu ez digulako. Egia da botako lituzketen eraikuntzen jabeek kalte ordaina emanen lieketela. Baina ez dakigu zenbateko kalte ordaina izanen den. Zeren etxebizitza guztiak botatzea proposatu zenean, oso gutxi zen etxebizitzengatik pagatu behar zutena.

Eta helegiteetan kostuak argitzea eskatu duzue?

Bai, beraien kostuak desglosatzea. Eta kontuan izatean, ondo. Behin aurrera jarraituz gero horiek izan daitezela kostuak, eta ez bikoiztea. Agian, horrela ez genuke urbanizazio plan hori egin beharrik.

Ikusten duzue ekonomia ikerketa "ahula" dela?

Ahula eta oso gutxi azalduta. Nolako den hobe azaltzeko eskatu dugu. Ez dakit aurkeztuko diguten ala ez.

Lur jabeek ere helegiteak aurkeztu dituzue?

Bai, partikularki ere gure abokatuek prestatutako helegiteak aurkeztu ditugu.

Planaren jendaurreko epea asteazkenean despeditu zen. Orain zer?

Udalak helegiteak noiz erantzunen dizkigun ez dakigu. Zeren aurrekoan helegiteak aurkeztu genituenean ez genuen erantzunik jaso. Orain itxarotea, besterik ez zaigu gelditzen. Eta oso kezkatuta, egun batetik bestera informazioa izanen dugulako. Ez dakigu hurrengoa zer izanen den: plana onartuta dagoela, berriro hausnarketa egonen den alegazioak aurkezteko edo zer gertatuko den.

Zaudeten bezala ongi zaudetela esan duzu. Baina epaia hor dago, bete behar da.

Bai, baina, epaileari azaldu dakioke toki hori nola dagoen, agian urbanizazioa ezin dela hor egin. Ekonomikoki atzera bota daiteke. Ere kontuan hartu beharko dugu han dagoen begetazioa. Zuhaitzak daude, hemengo haritzak. Eta proiektua eginez gero haritz guztiak botako lirakeke. Ingurumen aldetik arazo handia egonen dela ikusten dugu.



Gartzia Ximenez kaleko etxebizitzak.

Udalak Nasuvinsarekin hitzarmena sinatu du

Enpresa publikoaren "Alokairu Poltsa" programaren erakunde laguntzailea bihurtu da

ALTSASU

Altsasuko Udalak Nasuvinsak kudeatzen duen Alokairu Poltsa proiektuaren erakunde laguntzaile izateko hitzarmena onartu zuen herenegun. Nafarroako Gobernuaren enpresa publikoak Alokairu Poltsaren bidez berme batzuk eskaintzen dizkie etxebizitza hutsa han sartzen duten herritarrei, esaterako: errentako dirua garaiz kobratuko dela ziurtatzea, etxebizitza egoera onean bueltatzea eta etxean sor daitezkeen ezbeharrak estaltzen dituen arrisku anitzeko aseguruia kontratatzea. Kudeaketak errazteko Altsasuko Udalak etxebizitza errentariei laguntza eskainiko die. Esaterako, udaletxean Nasuvinsarendako agiriak uzteko aukera izanen da.

Bestetik, udalak, Nasuvinsarekin lankidetzan, Altsasun dagoen alokairuko etxebizitza eskaera kuantifikatuko du, eta etxebizitza babestuen eskatzaileen erroldan inskribatzera bideratuko du, altsasuarren etxebizitza-premiei buruzko ahalik eta informazio zehatzena izateko. Horretarako, aurki, inkesta banatuko du. Bestetik, Nasuvinsarekin batera, udala aztertzen ari da berea den Otadiako 3. sektoreko 3.1 lurzatian babes ofizialeko etxeak egitea.

Pandemiak markatutako aurrekontuak

Aita Barandiaran egoitzarako ekarpena bikoiztu egin du eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetarako 50.000 euro bideratu ditu. Zortzi langabe kontratatzea aurreikusten du, baita ostalaritza eta merkataritzari bultzada emateko partidak aurreikusi ere

ALTSASU

Altsasuko Udalak aurten 8.019.506,8 euroko aurrekontua du, Aita Barandiaran Egoitzaren eta Udalaren Musika eta Dantza Eskolaren patronatuena barne. Aurrekontua Geroa Bairen aldeko botoekin eta EH Bilduren kontrakoekin onartu zen asteazkenean. Urteko diru kontuak lantzerakoan udaleko sailek II. Emakumezkoen eta Gizonezkoen Berdintasun Planari jarraitu behar izan diote, genero ikuspegi txertatzeko.

Baina diru kontuak baldintzatu dituena pandemia izan da, "diru sarreren eta gastuen aurreikuspenari eragin baitio", azaldu du Javier Ollo Martinez alkateak, gaineratuz, "udal erai-kin guztietan garbiketa indartu da eta horrek, ezinbestean, ekarri du langile gehiago kontratatzea eskola, Haur Eskola, Gazte-txokoa, Ludoteka, kirol azpiegiturak edota Udal Musika Eskola eta Dantza eskolarako". Gainera, udaleko funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen ordainsariak %0,9 igo dira aurten.

Gizarte gastua

Alkateak nabarmendu du Altsasuko Udalak Aita Barandiaran egoitzako patronatuari egindako ekarpena. "Egoitza horretan lan-



Altsasuarrak udaletxe paretik pasatzen.

gileak indartu dira, egungo osasun krisiak eskatzen dituen eskakizunak eta funtzionamendu protokolo berria direla eta. Ondorioz, udalaren ekarpena ia bikoiztu egin da: 136.561,14 eurokoa izatetik 260.394,86 eurokoa izatera pasa da". Nafarroako Gobernuaren ekarpena 487.000,28 eurokoa da, eta egoiliarren tasen bidez 565.000 euro jasoko dira. Bestalde, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari dagokionez, udalaren ekarpena 50.000 eurotan handitu du, 387.657,54 eurokoa izanik aurten.

Azkenik, Altsasuko Udalak Musika eta Dantza Eskolari egindako ekarpena ere %1,3 igo da joan den urtearekin alderatuta.

Horiek eta aurrekontuko beste aspektu batzuk kontutan izanik, Ollok jakinarazi duenez, "%10eko doikuntza aplikatu da udaleko arloetako programetan, gastu sozialaren igoera nabarmena delako. Alkateak zehaztu zuenez, "aurrekontu exekuzioaren eta osasun krisiaren beraren bilakaeraren arabera, urtean zehar lehengoratu ahal izango den doikuntza da". Bestalde,

Ollok jakinarazi duenez, festetarako eta ferietarako diru partida txiki bat besterik ez dute bideratu. "Osasun krisiaren bilakaeraren eta horretarako ematen diren neurrien arabera, aurrekontu aldaketaren bidez bideratuko litzateke horretarako dirua".

Indarrean den ordenantza bezelako, Altsasuko Udalak I. Esku-hartze globaleko plana idazteko 3.000 bat euro bideratuko ditu. Plan horren bidez udalak sustatu nahi du altsasuarrak etxebizitza eraikinetan ingurutzaleak birgaitzeko jarduketak egitea. Aurten udalak horretarako 25.000 euroko dirulaguntzak ematea aurreikusten du.

Bestetik, pandemia eta emandako prebentzio neurriak saltoki txikietan eta ostalaritzan izaten ari diren ondorio larriak arintzeko helburuarekin, 17.000 euroko bi aurrekontu partida aurreikusi ditu udalak. "Alde batetik, kontsumo bonuen karpaina bat egiteko eta, bestetik, gure udalerriko ostalaritzarako eta ostatu negozioetarako zuzeneko laguntzen deialdia abian jartzeko", zehaztu du Ollok.

Inbertsioak

Dagoeneko onartu direnak honakoak dira: **236.000** euro Zelandi eskolako patioa berritze-ko (gobernuaren dirulaguntza); **28.000** euro estalpe baten proiektua idazteko. Ziurrenik Iortia inguruan legoke. EH Bilduk 50.000 euro bideratzea eskatu zuen, baina eskaera emendakin bidez moldatu zuen Geroa Baik. Bide eta oinezkoen mugikortasunari buruzko azterlan egiteko 20.030,80 euro proposatu zituen EH Bilduk; **25.000** euro Pandemiari aurre egiteko produktuak eta materiala erosteko;

13.150 euro futbol zelaiaren lerro urdinak berritzeko, obra egin zuen enpresaren abala partzialki erabiliz; **9.135** euro 2020an egindako Udalaren Antolaketa Azterlanaren laguntza teknikoarekin abian jartzea; **5.000** euro hiri-altzariak berritzeko; **4.000** euro mendi ibilbideak homologatzeko eta **3.100na** euro 2022an gauzatzeko baso lanen eta abeltzaintza azpiegiturak hobetzeko proiektuak idazteko.

Udalak urtean zehar aurrekontu aldaketak egin eta inbertsio gehiago egitea aurreikusten du, esaterako: kaleen zoladura berritzea, basoko pisten konpontzea, Udal Plan Orokor berria idaztea, kirol instalazioetako inbertsioak, Ibarrea industrialdeko hondakin uren saneamendu obren hirugarren fasea (trenbide inguruko eraikitzea eta dagoeneko egindako bi faseak lotzea), Intxaurrondo plazako euri urak biltzeko eta bideratzeko obra gauzatzeko, Zelandi eskolako lehen solairua margotzea...

Bizikidetzara plana

Udalak, Historia Memoriaren eta Bizikidetzaren Batzordearen bidez, urratsak ematen segituko du Altsasuko Bizikidetzara Plana egiteko. Joan den urtean lanari ekin zion lanari, parte hartze diagnosis eginez.

Azkenik, Geroa Baiko Julen Diaz Oiarbide zinegotziak arrazoi pertsonalak argudiatuta udal ardura utzi zuen ilbeltzean. Asteazkenean jakin zen Diazen lekukoa Santi Luceño Ariasek hartuko duela. Geroa Bairen hauteskunde zerrendan 13. postuan aurkeztu zuen Luceño (koalizioak 10 zinegotzi lortu zituen). Aurretik, 2011 eta 2013 bitartean, NaBaiko zinegotzia izan zen.

kaxeta
LIBURUDENDA

Ikus ezazu gure liburu katalogoa **kaxeta.net-en**

fotokopia@kaxeta.net
628 542 519 | 948 460 477

Autoen aseguruak

MAPFRE
Tu aseguradora de confianza

JOSE ANTONIO
IMAZ PRIM
948 563 354
jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 · ALTSASU

Zure esperientziarik onena
PREZIORIK ONENEAN

PORTUKO
okidengia

Altsasu:
948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz:
948 460 988



GURELUR

Iturritxo erreka zaborrez garbi

Erburua kiroldegiaren ondoan dagoen Iturritxo erreka eretzeta eta uraren ibilguan zabor ugari zegoen pilatuta, paisaia inpaktu handia sortuz eta erreka urak kutsatuz. Horren berri eman zioten Gurelurri, eta laguntza eskatu zuten erreka zaborra garbitzeko. Hala egin zuten 18an. Mank-i eta udalari kontzientziario kanpainak eskatu dizkie Gurelurrek.

Haur Hezkuntza doakoa eta duina exijitu dute

Nafarroako 0-3 Plataformak deituta, 0-3 urte bitarteko hezkuntza komunitateak bere haserrea erakutsi zuen Iruñean larunbatean. Hezkuntza sistema berdintzailerik handiena izateko "hezkuntza politika irmoa eta ondo finantzatua eskatzen dugu. Bi gauza egin behar dira batean: hezkuntza ekitatea bermatu eta aldi berean eta modu koordina-

tuan, haur pobrezia aurka borrokatu". Eta, besteak beste, exijitu zuten: ume kopuruarekiko ikasle ratioak jaitea, langileen egoera duintzea, 0-3 zikloa funtsezko zerbitzutzat hartzea, Haur Hezkuntza duintzeko alde guztiak lan koordinatua egiteko bilerei boikotik ez egitea, zikloaren doakotasuna eta familiek hezkuntza publiko batengatik tarifa garesti eta elitista ordaindu beharra izatea. Zikloaz Gobernu Akordioan jasotakoa ez dela betetzen ari salatu zuten.

DUELA 25 URTE...



Sexagutuz, sexualitateari buruzko buletina

Gazteei sexualitateari buruzko informazioa eman nahi ziren, "lotsarik gabe, taburik gabe". Bi orrialdeko buletina zen, eta gazteek egina: Dudu, Parapa eta Erkuden. Ideia Cofes-Izargin sortu zen eta Altsasuko Gazte Batzordeari proposamena egin zioten, eta gazteek onartu. Ahalik eta gazte gehienengana iristeko helburua jarri zioten beraien buruari eta pixkanaka gazteak buletinean parte hartzen hasi ziren.

"Dinabide modukoak egoteak zentzua du"

AINTZANE IRIBERRI BERROSTEGIETA SGA KO INDUSTRIA ETA ENERGIA ARDURADUNA Sadenako eta Nafarroako hainbat klusterretako arduradunak Sakanako eraldaketa digitalerako gunea, Dinabide, bisitatu zuten herenegun

Alfredo Alvaro Igoa IRURTZUN Bisitariak Dinabide espazioa ezagutzeaz aparte, bertan lanean ari direnekin aritu ziren. **Zer da kluster bat?**

Hainbat eragile biltzen dituen elkarte antzeko bat da. Sektore edo helburu komunean lan egiten dute eta beraien indarrak handitzeko, zerbitzuak elkarbanatzeko elkartzeko dira, elkar laguntzen dute, klusterreko entitateen edo enpresen artean sinergiak sortzen dira, proiektuak egiten dituzte... Helburu desberdinekin sortu daitezke klusterrak. Kluster horiek normalean sektorekoak dira, esaterako: Acan, automobilgintzarena; Functional Print, inprimaketa funtzionala eta gehigarria; Nagrifood, nekazaritzako elikagaiena; Enercluster, eolikarena, Clavna, ikusentzunezkoena; Atana, IKTena. **Horieta Sakanako enpresarik?**

Bai, sartuta daude. Enerclusterren ibarreko enpresa dezente daude: Barranquesa, Eseki, Laneko, Jatorman, Sakana group eta Saprem electronica. Nagrifooden, berriz, Quesos La Vasconavarra, Arbizu hestekiak, Lacturale eta Viscofan. Acanen Iberica de Suspensiones eta Functional Printen SDI inprenta. **Zergatik joan ziren klusterretako arduradunak Dinabide bisitatzera?** Eraldaketa digitala sustatzeko tresnez hornitu gara. Baliabideak ere jarri ditugu pertsonen teknologia horiek nola eta non erabili behar dituzten jakiteko. Gure esperientzia, bereziki azken urtekoa, ezagutzera. Tailerra, makinaren demostrazioak, kasu arrakastatsuak, fabrikazio gehigarriko piezak, errealitate areagotuko aplikazioak, elkarlaneko robotika eta exoeskeletoak ezagutu dituzte. Proiektuak martxan ditugu. Hori guztiak ezagutzera etorri dira ere. Ez da bakarrik teknologia ezagutzera. Coworkerrek ere beraien proiektuak azaldu dituzte. Bat energiaren



Sodenako eta klusterretako ordezkariak Dinabideko atean. SGA

"BIDERKATZAILEAK IZAN DAITEZKEEN ENTITATEAK ERAKARTZEN SAIAITZEN GARA"

inguruko gaiekin ari da. Beste bat aerosorgailuen inguruko garapen bat egiten ari da. Beste bat, berriz, partekatutako autoen plataforma multimodalaren sorreran murgilduta dago... Erakusteko proiektu polit batzuk badauzkagu eta ikus dezatela ekintzailtza gure eskualdean ere eman daitekeela. Horrelako proiektuei erantzuteko, Dinabide bezalako tresna interesgarriak dira halako eskualdeetarako, hemen egoteak zentzua du.

Eta Dinabide bera etorkizunean jardun gehiagoz janzteko?

Jakina. Klusterretako arduradunak etorrita, lortu beharko genukeena da ikustea zer aukera dauden beraien klusterreko enpresendako eta haiekin ere bisitan etortzea. Hau da, kluster bakoitzari saio espezifikoak eskaintzea; teknologia nola erabili edo zer proiektu esanguratsu

errepikatu daitezkeen beraien enpresetan. Azken batean, biderkatzailak izan daitezkeen entitateak erakartzen saiatzen gara. **Zer mugimendu dago Dinabiden?** Gero eta gehiago gaude. Joan den urtean coworker presentzialerako aukera eskaintzen genuen: Dinabidera etorri eta gurekin eraldaketa digitalarekin zerikusia daukan proiektua bultzatzeko aukera eskaintzen genuen. Baina egoera ikusita, egokitu gara eta, birtualki aritzeko aukera ere eskaini dugu. Lau coworker dauzkagu jada. Jendea hurbiltzen zaigu, bai proiektua martxan jartzeko edo laguntza behar dutelako, bai gurea, baita Nafarroako beste entitateek ematen dutena. Prestakuntza jasotzera, teknologia berriak ezagutzera, ere etortzen dira. Nahikoa espazio irekia da eta eraldaketa digitalarekin zerikusia daukan edozein proiektu edo berrikuntza bai guk, gure aholkulariek, lagun ditugun entitateek ere laguntza eskaintzen dute. Pixka bat hazi gara. Zerbitzu gehiago eskaintzen ditugu, teknologia gehiago baitugu. Etorri daitezela eta galde-tu dezatela. Nahikoa malguak eta irekiak gara.



Fatxada margotzeko aldarmioak jarrita. Eskuinean ostatuko karpa.

Arruazuk plan estrategikoa eginen du aurten

Uda ondoren egitea eta epe ertainerako izatea da asmoa. Estalpeaz parte hartze dinamika martxan da

ARRUAZU

Aurrekontu Egonkortasun Legea bete ez zuenez, Arruazuko Udalak ezin izan zuen herriko plan estrategikoa egiteko prozesua martxan jarri. Aurten eginen du. Gorka Ovejero Ganboa alkateak esan duenez, "Bakaikun egin zen prozesuaren antzekoa egin nahi dugu. Enpresa bat kontratatuko dugu plan estrategikoaren dinamizazioaz arduratzeko. COVID-19 gaitzak uzten badu, herriarendako lehentasunak zehazteko, uda ondoren hasi nahi genuke batzar eta lantaldeak sortzen eta martxan jartzen".

Ovejero azaldu duenez, "Arruazu herri txikia denez eta ekonomia gaitasuna mugatua duenez, epe ertainerako plan estrategiko bat eginen genuke, 15-25 urterako-edo". Udalean dauden aztergai dituzten gaietako batzuk dira: etxe bat erostea etorkizunean adinduendako egokitzeko, plazan estalpe bat jartzea edo ez eta udaletxean berogailua jartzea. Guztiak inbertsio handia eskatuko luketen erabakiak dira.

Prozesua bideratuko duen enpresa kontratatuko 15.000 euro (BEZ kanpo) bideratuko ditu udalak. "Halako prozesuetarako dauden dirulaguntzak eskasak dira. %50 eta %80 artekoak izatea espero genuen, baina joan den urtean Nafarroako Gobernuak 3.836,01 euroko dirulaguntza besterik ez ziguten onartu", kexu azaldu da Ovejero. Aurrekontu Egonkortasun Legea bete ez zuenez, udalak dirulaguntzari uko egin zion.

Estalpea

Lakuntzako Udalak plaza estaltzeko zuen estalpe zaharra joan den urtean Arruazuko plazan jarri zuten, ostatuaren eta parkearen ondoan. Estalpeak zerbitzu ona eman zuela uste dute udalean, baina arbazuarren artean estalpe finko baten inguruan zein iritzia dagoen jakiteko parte hartze prozesua martxan du Arruazuko Udalak. Herriko etxeetara inkesta bidali du arbazuarrek erantzun dezaten estalpe finko bat beharrezko jotzen duten edo ez, lehentasunezko lan bat den edo ez, beharrezko joz gero non jarriko luketen eta zein tamainakoa egiten luketen zehazteko eskatuz eta gauza onak eta txarrak aipatzeko eskatuz. Erantzunak udaletzeko buzoian edo arruazukoudala@arruazu.eus e-postara bidali daiteke. Inkestaz aparte, udalak bi batzar deitu ditu estalpearen inguruan hizketatzeko: otsailaren 27an eta martxoaren 20an. Biak larunbatak eta 17:00etan hitzorduetan jarri ditu.

Aurrekontuaz

Arruazuko Udalak bere aurten aurrekontuan 138.928,08 euroko diru sarrerak eta 138.385,22 euroko gastuak aurreikusi ditu. Joan den urtean baino 22.326,82 euro gehiago ditu aurrekontuak. Ovejero azaldu duenez, dirulaguntza gehiago jasotzeko aurreikuspenagatik izan da aurrekontuan diru hazkunde hori. Izan ere, udalek dirulaguntzarik gabe apenas egin ditzakete in-

bertsioak zor handitan sartu gabe.

Hain zuzen, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzekin finantzatzen ari da Arruazuko Udala trenbidetik Aralar aldera dagoen basoan aziendarako bazkalekua edo angioa egiteko lanak. "Hirugarren urtea izanen da aurten han lanak egiten ditugunak. Itxituraren erdia berritzen hasi ginen, joan den urtean sasiak kendu genituen eta aurten sasi garbiketa lanekin segituko dugu", azaldu du Ovejero. Lan horiek

herriko basogintza planean jasoak daude.

Dermioan Arakil gaineko bi zubi ditu: Arnazkoa eta Uharte Arakilerako errepide zaharrekoa. Biak ere egoera txarrean daude. Arnazkoa zubiaren zutabe batek harriak erori dira eta udala hura konponduko duen kisugile noiz etorriko zain dago. Bestea zubiaren jabetza udalarena edo gobernuarena den argitzeko dago. Bestalde, mediku kontsultategiaren fatxada berri eta murala margotuko du Iker Uribe.

Basoko institututik Lanbide Heziketakoari babesa azaldu diote

Altsasu Bigarren Hezkuntza eta Batxilergo Institutuko 50 langilek babesa adierazi dio Sakana Lanbide Heziketako Institutuari, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak handik Mendi eta Kirolaren ikasketak jarraitzea ala ez aztertzen ari baita. Sinatzaileen ustez ikasketak horiek Sakana LHko institutuaren jarraitu behar dute.

AZKENEKO ERREMATEA

Dena kanpora!

-%30

-%15

-%40

-%70

MERKEALDIAR

-%50

-%25

MARTXOAK 5^{ETA} 6 ALTSASUN

Leguntzaileak:

Parte-hartzaileak:
 Arkatz Liburudenda, Asensio, Calzados Bengoetxea, Deportes Lezea, Ekin Moda, Iker Kirolak, Iulene, Joselen-Joss, Katuka, Mari Carmen, Larka, Lasa Kirolak, Liburunda, Pinpilinpaua, Sare Calzados, Tu Tienda Especial, Txikitxo, 13 Udaberri Loredenda.

Comercios de Navarra Nafarroako dendak

Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako jarduketa

Antolatzailea:

ADE
Altsasuko Dendanen Elkarte

GUAIXE FUN
LANTA

SAKAN
ZUE
ZUENTZ



**GOIZEDER
ANTON ITURRALDE**
GUAIXE FUNDAZIOKO
KOORDINATZAILEA




**GEMA
LAKUNTZA LOPEZ**
GUAIXE FUNDAZIOKO
ADMINISTRARIA



**ALFREDO
ALVARO IGOA**
GUAIXE ASTEKARIKO
ERREDAKZIO BURUA




**MAIDER
BETELU GANBOA**
GUAIXE ASTEKARIKO
ERREDAKTOREA



**ERKU
RUIZ BA**
GUAIXE AS
ERREDA

DAZIOAREN
ALDEA

IAN
KIN
ETA
ZAT
EUSKARAZ



**AINARA
SANTIAGO LANGARIKA**
GK DISEINU ETA KOMUNIKAZIO
ZERBITZUKO ARDURADUNA



**AINHOA
ETXEBERRIA PIKABEA**
GK DISEINU ETA KOMUNIKAZIO
ZERBITZUKO DISEINATZAILEA



**IRENE
TRECET OBESO**
GUAIXE ASTEKARIKO
DISEINATZAILEA



**IRENE
TRECET OBESO**
GUAIXE ASTEKARIKO
DISEINATZAILEA ETA MAKETATZAILEA



**ENEIDA
CARREÑO MUNDIÑANO**
BELEIXE IRRATIKO ESATARIA
ETA GUAIXE FUNDAZIOKO PUBLIZISTA



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN
BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 26

ALTSASU Gazte agenda: Sexgunea.
18:00etatik aurrera, Inxostiapuntan.

URDIAN Martxoak 8. Hitzaldia:
Ezin badut dantzarik egin, hau ez da nire iraultza. Hizlariak: Oier Araolaza antropologoa eta dantzaria eta Maialen Galarza antropologoa.
18:30ean, auzoan.

ALTSASU Hitzaldia: **Okupazioaren kontrako ofentsiba.**
Antolatzailea: Erraki.

19:00etan, gaztetxean.

ALTSASU Euskaraldiko bilera.
Hurrengo ariketa bitartean zer egin aztertuko da.
19:00etan, Gure Etxea eraikinean.

SAKANA Azken ostirala.
Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Etxarri Aranatz, Arbizu, Bakaiku eta Altsasu. Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzeak.
20:00etan, plazan.

OLAZTI Pedro Mairal idazlearen **La Uruguaya** liburuari buruz hitz egingo du Irakurle klubak.
20:00etan, liburutegian.

LARUNBATA 27

LAKUNTZA Herri eskolak.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Mi niña gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Ostirala 26: 19:00
Ostirala 28: 19:30

El chico gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 4: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

La chica del brazaile zineforum filmaren emanaldia
Ostirala 28: 19:30

Beginning zineforum filmaren emanaldia
Osteguna 4: 19:00



PEOPLE ART FACTORY

ALTSASU **Emakume malgaxearen indarra** erakusketa birtuala.
Martxoaren 29ra arte. People art factory webgunean,
<https://labur.eus/EmaMalgaxe>.

ALTSASU Langile klasearen defentsan Alde Hemendik.
20:30ean, Foru plazan.

IGANDEA 28

ALTSASU Iturgoiengo Trinitatera irteera egingen du Altsasuko Mendigoizaleak taldeak.
Maskarak eraman behar dira eta pertsonen arteko distantzia mantendu behar da.
08:00etan, egoitzaatik.

IRURTZUN **Futbolistok** Zuhaitz Gurrutxagaren bakarrizketa.
6 euro.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 1

ALTSASU Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ASTEAZKENA 3

ALTSASU Ibon Martinezen **Onin** bildumari buruzko solasaldia.
Sarrerak agortuta.
18:00etan, Iortia kultur gunean.

ALTSASU Ibon Martinezen **La hora de las gaviotas** liburuaren aurkezpena.
19:00etan, Haritza tabernan.

IRURTZUN **Ombuaren itzala** filma auzolan proiektuaren aurkezpena Patxi Bisquertekin.
19:00etan, kultur etxean.

Bazkide Zozketa

OTSAILEKO SARIAK

1. SARIA

Aitziber Zufiaurre Martinez (Urdiain)

2. eta 3. SARIAK

Isabel Nazabal Auzmendi (Etxarri Aranatz)
Camino Mendiluze Arregi (Altsasu)
Lourdes Lopez Sarasola (Olazti)



Hitzaldia: **Zergatik infantilizatzen gaituzte?**
Antolatzailea: Ikasle Abertzaleak.
11:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Sareren prentsaurreko herritarra.
13:00etan, plazan.

ALTSASU **Losers** antzezlanaren emanaldia euskaraz.
Sarrerak agortuta.
17:00etan, Iortia kultur gunean.

ARRUAZU Estalpeari buruzko batzarra. Udalak deituta.
17:00etan, udaletxean.

ALTSASU Gazte agenda:
Gran turismo play txapelketa.
18:00etatik aurrera, Inxostiapuntan.

LAKUNTZA Martxoak 8. **Emakume langileok** antolakuntza eta borroka: Gaur egungo harremanen inguruko tailerra.
LAGAK antolatuta.
18:30ean, kultur etxean.

ALTSASU **Losers** antzezlanaren emanaldia gaztelaniaz.
Sarrerak agortuta.
19:30etan, Iortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Xabier Mintegiren **Amanece en San Fermin** liburuaren aurkezpena **Monika Arratibelekin**.
19:00etan, kultur etxean.

ZORION AGURRAK



Jose Barandiaran Zorionak Aitona!! 100 urte bete dituzun egun honetan, zure familiak urte guzti hauek zehar eskura izan dituzun astekariaren bitartez zoriondu nahi zaitu. Maite zaitugu!



Alaitz Zorionak Alaitz! Asko maite zaitugu!



DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarras.com
www.dekovenavarras.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKELA



Patxi Moreno Iribas

Zure konplizitate begirada, irria...

Zure umore puntu berezi hori...

Patxi, laguna, beti gurekin

Iratxo Elkarte

ESKELA

Patxi Moreno Iribas

Zaude bakean lankidea, laguna eta bizitzako hainbat gauzatan maisua



CP Atakondoa IP

ESKELA



Antonio Barragan Alejandre

Lakuntzako lagunak igande honetan, hilak 28, eguerdiko 12:30ean, Lakuntzako elizan bere alde egingo den mezara gonbidatzen zaituztegu.

Gure artean zaude

OROIGARRIA

Gorka Larrea Ondarra

IX. Urteurrena

Margotuko ditugu kolore berriak

Irekiko ditugu batera ateak

Horri zuri batean ipuin ederrenak

Baina beti zurekin

Ez zaitugu inoiz ahaztuko

Maita zaitugu

Zure lagunak

ESKELA

Trini Armendariz Uharte

Nekez uzten du Trinik bere sorterrria, sustraiak hemen dituelako

Zure lagunak

Irañetan, 2021eko otsailaren 22an

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

► Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €
prezio hauek BEZa bame dute.

► Bazkideek % 10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALDU

Bi garaje plaza salgai Etxarri Aranatzan, oso prezio onean. Deitu 661 186 576.

JOAN-ETORRIA

Sakana Gasteiz joan-etorria: goizero Sakana-tik Gasteiza joan-etorrian dabilen norbaiten bila nabil, ikastera joateko garraio gabe gelditu naiz eta. 688 688 868 Jokin

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Sakanako Mankomunitateko euskara zerbitzua aisialdiko begiraleen lan poltsa osatzen ari da: C1 eta DBH edo balioak diren tituluak egiaztatu beharko dira. Curriculuma bidaltzeko

edo/eta informazio gehiago lortzeko harremanetan jarri euskara1@sakanamank.eus helbidera idatziz.

IKASTAROAK

Cedema Garalurrek antolatutako doako ikastaroak: Nafar Lansare eta Plazaola turismo partuergoarekin lankidetzan Turismo, merkataritza eta bestelako zerbitzuetako negozioei zuzendutako. Presentzialak izango dira Oinarrizko marketing eta sare sozialak ikastaroak (Lekunberri martxoaren 1etik 31ra, eta Leitza apirilaren 12tik maiatzaren 12ra) eta Frantsez profesionala turismoan ikastaroa (Apirilaren 20tik maiatzaren 20ra), osasun neurri egokiak hartuko dira, 16 lagun gehienez. Antolatutako zure paperak

Ogasunarekin betetzeko ikastaroa (martxoak 16) eta Ogasunarekin trami-teak online nola egin ikastaroa (Matxoak 23) Online izango dira. Informazio gehiago eta izen emateak 848 424 500 / 948 450 309 tfoetan eta mendialdea@cedema.es helbide elektronikoan.

Gatazken konponketa ikastaroa Altsasuko Intxostiapuntan: Martxoaren 6ean eta 13an, 10:00etatik 14:00etara. 16 - 30 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Plaza mugatuak dira, 12 euroko kostea du eta ziurtagiria emango da. 012 deitu, izena emateko azken eguna otsailaren 28an izango da. Informazio gehiago 948 564 785 / 607 617 778 tfoetan.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

JAIOTZAK

- **Izan Chamba Maiorga**, otsailaren 9an Etxarri Aranatzan
- **Sara Jimenez Borja**, otsailaren 14an Etxarri Aranatzan
- **Xuhar Ieregi Franco**, otsailaren 15ean Arbizun

HERIOTZAK

- **Martina Setuain Etxandi**, otsailaren 17an Ihabarren
- **Fermin Mazkarian Iturrioz**, otsailaren 19an Altsasun
- **Jose Ramon Regil Esnaola**, otsailaren 20an Altsasun
- **Mari Carmen Jimenez Sequera**, otsailaren 20an Arbizun
- **Patxi Moreno Iribas**, otsailaren 20an Irurtzunen
- **Josefa Izagirre Lezea**, otsailaren 21ean Altsasun
- **Francisco Lacalle Villanueva**, otsailaren 23an Irurtzunen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

🐦 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es



Sonia Alonso eta Udane Vergara, aurreko larunbatean Labriten lortutako 2. mailako Binakako txapelarekin. UTZITAKOA

Txapela buruan, Master Cupa xede

PILOTA Nafarroako Kluben Arteko Emakumezkoen 2. Mailako Binakakoa irabazi dute Altsasuko Pilotajaukuko Udane Vergarak eta Sonia Alonsok. Nafarroako txapelkunak dira, eta Emakume Master Cup txapelketa da euren hurrengo helburua

Maider Betelu ALTSASU

Nafarroako txapelkunak dira Altsasuko Pilotajauku klubeko Udane Vergara eta Sonia Alonso. Larunbatean, Labriten, Nafarroako Kluben Arteko Emakumezkoen 2. Mailako Binakako finala jokatu zuten Goizuetako Umore Onako Ainhoa Zabaletaren eta Maria Eskuderoren kontra. Partida estu hasi zen, baina berehala Pilotajaukuko bikoaren aldeko kolorea hartu zuen. "Hasieran bi bikoak parean ibili ginen, baina 5. tantoaren ondotik gora egin genuen eta, egia esan, finala nahiko erraz atera genuen aurrera" azaldu du Udane Vergara aurrelariak. Hortik ia zuzenean 22ra joan ziren, 22 eta 9 irabazi baitzuten.

Bere atzelaria, Sonia Alonso, iritzi berekoa da. "Txapelketan hiru bikote lehiatu gara, gu eta Goizuetako Umore Onako beste

bi bikote, Zabaleta-Eskudero eta Arozena-Zelarain. Bi bikoteen kontra aritu ginen finalera sailkatu baino lehen, eta aurretik Zabaletari eta Eskudero irabazi genien. Beraz, finalean atzera ere eurak irabazteko aukera genuela bagenekien. Nik uste maila gehiago genuela" azaldu du.

Finalean ikusleen babesa izan zuten, izugarri eskertu zutena. "200 pertsonendako tokia baimendu zuten Nafarroako Pilota Federazioak, eta erdia bete zen gutxi gorabehera. Beraz, etxeok eta lagunak han izan ziren animatzen eta oso gustura egon ginen. Izan

"AZKENEAN KIROL BATEN ALDE EGIN BEHARKO DUT; PILOTA OSO GUSTUKO DUT" SONIA ALONSO

ere, frontoian zaleen falta izugarri sumatzen da. Azkenean, jendeak bultzatzen dizu, animatzen zaitu, eta oso ezberdina da zaleekin edo zalerik gabe jokatzeko nabarmendu du Udane Vergarak. Biak oso pozik daude lortutako txapelekin. Aurreko Nafarroako Emakumeen 2. mailako Binakako txapelkunak direnez, pentsatzen da datorren denboraldian 1. mailara egingo dutela salto.

Altsasuko Pilotajaukuko emakumeen talde nagusian lau zapabost pilotari daude, Udane Vergara, Sonia Alonso, Naroa Agirre eta Aroia Berastegi tartean. "Astean behin entrenatzen dugu, ostiraletan, eta gero bakoitza bere kabuz aritzen da. Bi astez behin Andrea Lusarreta palistak entrenatzen gaitu. Ni Iruñean nago asteaz zehar, eta ostiraletan, Altsasura natorrenean, bi orduz entrenatzen dut frontoian. Gero,

nire kabuz korrika, indarreko entrenamenduak eta beste egiten ditut" dio Vergarak. Pilotajaukuko talde polita duela uste du, emakumeen taldeak bizpahiru urte dituela kontuan hartuta. Talde nagusian ez dira asko, baina gazteak gogotsu badatoz, taldea sendotuko da. "Atzetik datozen txikien taldekoak indartsu datoz" nabarmendu du Vergarak. Horrela bada, etorkizuna badago.

Sonia Alonsoren Nafarroako bigarren txapela

Sonia Alonsoren denboraldi honetako bigarren txapela da larunbatean Labriten jantzi zuena. Abenduan Nafarroako Kluben Arteko Emakumezkoen 2. Mailako Buruz Buruko txapela irabazi zuen Oberenako Garazi Lasari 18 eta 9 irabazita. Harritzekoa da, pilotaren munduan "nahiko berria" dela esaten baitu Sonia. "Betidanik gustatu izan zait pilota. Aurreko urtean Pilotajaukurekin pilotan federatu nintzen, baina ezin dut Pilotajaukuko entrenamenduetara joan. Nire kabuz entrenatzen dut, lagunekin eta anaiarekin" aitortu digu.

Izan ere, emakume lanpetua da Sonia. Olaztiko lantegi batean lan egiten du, lanaldi zatituan, eta pilotaria izateaz gain, futbolaria eta korrikalaria era bada. Altsasuko emakumezkoen futbol taldeko jokalaria da eta ostiralean ditu entrenamenduak, hain justu Pilotajaukuko entrenamenduak direnean. Eta Dantzaleku Sakarekin atletismo entrenamenduak izaten ditu asteazkenetan eta larunbatetan. Hori gutxi ez balitz, Pilotajaukuko gaztetxoentzako taldeko entrenatzailea da.

"Duela 6 urte goi mailako kirolari buruzko ikasketak egin nituen Gasteizen, Aktibitate Fisikoen eta Kirol Irakaskuntzako eta Animazioko Goi Mailako Teknikari ikasketak. Futbol entrenamenduak gidatzen egon nintzen 2 urtez, eta joan den urtean Pilotajaukutik entrenamenduak egiteko deitu ninduten. Animatu nintzen, eta horretan nago. Astelehenetik ostegunera egunero ordu eta erdi nabil en-

"OSO GUSTURA NABIL PILOTA, ETA GAUZAK ONGI ATERATZEN ARI DIRA. ETA AUERRERA" UDANE VERGARA

trenatzaile, pilotako taldean 8 neska ditut eta palakoan 10. Gustura gabiltza, pixkanaka hobetzen" aipatu du Sonia.

Nola edo ahala, pilotan entrenatzeko tarte ateratzen du Sonia. Egoera kontuan hartuta, dohainak dituela agerikoa da. Bi txapel lortzea ez da nolana hiko. Gainera, edozein postutan joka dezake, jokatzeko duen bikotearen arabera. "Udanerakin atzelari ibiltzen naiz, baina aurrelari ere moldatzen naiz. Aurrelari postua gehiago gustatzen zait" azaldu du. Altsasuarra kontziente da azkenean zerbaiten alde egin beharko duela. "Esan didate ea Latasan pilota entrenatu nahi dudana. Beste ordutegi bat dute, hobeto datorkidana. Kirol askotan nago sartuta, eta azkenean aukeratu beharko dut. Datorren urtean agian futbola utziko dut eta pilotan zentratuko naiz, baina oraindik ez dut argi. Guztia aztertu beharra dut" aitortu du.

Emakume Master Cup erronka

Udane Vergararen eta Sonia Alonsoren hurrengo erronka Emakume Master Cup Binakako Pilota Txapelketa da. Izena eman dute, baina txapelketa atzeratu egin da, astelehenean aurkeztuko dute, Bilbon. Udane Vergarak bi urte daramatza Masterrean jokatzeko, baina Alonso aurreko estreinatuko da. "Gogotsu nago; ea nola ateratzen den. Ilusioa dut, Euskal Herriko klub guztietako pilotariak daudelako. Beste pauso bat litzateke" dio Alonsok.

Vergarak pilotaren aldeko apustua egin du, aurretik futboleantzen baitzen, eta ez da damutu. Oberenaren aritu izan da, orain Pilotajaukun, eta baita Nafarroako selekzioan ere. "Oso gustura nabil pilotan, eta gauzak ongi ateratzen ari dira. Beraz, aurrera" dio. Nafarroako Binakakoa ez da Vergarak duen pilota txapela bakarra. "Espainiako Txapelketako urrezko domina dut, Nafarroako selekzioarekin GRAVNI txapelketakoa, gero klubeko beste bi, Gabonetako Txapelketa eta beste bat, eta orain hau, Nafarroako txapela. Oso pozik nago" azaldu du. Master Cupean gain, Nafarroako selekzioan du burua. "Aurrekoan aipatu zigian duen prest egoteko. Ea Nafarroako selekzioarekin entrenatzen hasteko deitzen gaituzten. Aurki GRAVNI eta halako txapelketak hasiko dira, eta badaezpada prest egon beharko dugu" dio Vergarak.



Hodei Ezpeleta eta Goizeder Beltza, igandean Leiztan jokatuako finalerdian. EGURSPORT

Goizeder Beltza finalean, eta Iban Resanok bihar du aukera

AIZKORA Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketako 3. finalerdia jokatuko dute bihar Resanok eta Lopezek

Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketako bigarren finalerdia jokatu zen igandean Leiztan. Hiru bikote aritu ziren lehian, martxoaren 14an Azpeitiko Izarraitzen jokatu den final handirako txartela lortu nahian: Goizeder Beltza etxarriarra eta Hodei Ezpeleta, Joxean Etxeberria eta Unai Otaegi eta Luis Polanco eta Jon Telletxea.

Ondoko lana egin behar izan zuten: erlojuaren kontra 45 ontzako erdibitu; 65 ontzako enbor handia erdibitu, txanda librean; eta 60 ontzako 6 enbor erdibitu, txanda librean. Beltza-Ezpeletak eta Etxeberria-Otaegik lehia oso estua izan zuten, eta lan guztiak kontuan hartuta Beltzak eta Ezpeletak lortu zuten finalerako txartela (21:12), 6 segundoren alde ateratzen Etxeberria-Otaegiri (21:18). Polanco eta Telletxea azkenak izan ziren (25:44). Lehen jardunaldian sailkatu

ziren Ibai Soroa eta Txomin Amundarain dituzte zain finalean. Hirugarren finalista bihar, larunbata Mallabian jokatu den hirugarren jardunalditik aterako da (18:00etan, atek itxita). Hiru biko ariko dira lanean: Iban Resano dorrobarra eta Juanjo Lopez Azpilikueta, Suharri Rodriguez eta Jokin Urretabizkaia "Basozabal" eta Xabier Zaldua eta Julen Aranberri "Elorriaga II.a". Ea Resano eta Lopez fin ibili eta finalerako sailkatzea lortzen duten.

Jon Irañeta kanpo, lesioagatik Igandeko Leiztako jaialdian Urrezko Binakako Harri Jasotze Txapelketako 2. finalerdia jokatu zen baita ere. Egitarretako Jon Irañeta harri jasotzailea bertan aritzeko zen, baina lesio baten ondorioz ezin izan zuen aritu eta, tamalez, txapelketatik kanpo geratu da.

Binakako Txapelketa: David Goliaten kontra

PILOTA Igandean, Tolosan, sailkapenean azkenak diren Jakak eta Martijak Elezkano II.a eta Zabaleta lider ahaltuak izango dituzte aurkari. Ezkurdiak eta Ladis Galarzak arerio latzak dituzte astelehenean Zestoan: Altuna eta Mariezkurrena

Binakako Pilota Txapelketa aurrrera doa eta gutxika sailkapenearen goialdeko eta behealdeko aldean arteko arrakala handitzen doa. Elezkanok eta Zabaletak sailkapenearen buruan jarraitzen dute (7 puntu), Altunarekin eta Mariezkurrenarekin puntutara berdinduta. Olaizola II.a-Rezuskak eta Peña II.a-Albisuk bosna puntu dituzte, Urrutikoetxea-Imazek eta Ezkurdi-Ladis Galarzak hiruna puntu, eta Artola-Aranguren eta Jaka-Martijak puntu bana. Elezkano-Zabaletak eta Altuna-Mariezkurrenak hanka erdia baino gehiago dute finalerdietan, eta gainontzekoek muturra sartzeko gogor borrokatuko dira. Artola-Aranguren eta Jaka-Martijak ia ezinezkoa dute finalerdietako txartela lortzea; euren erronka egoerari buelta ematea eta ahalik eta itxura onena ematea da.

9. jardunaldiak dakarrena Igandean liderrak eta azkenak aterako dira Tolosako Beotibaroko kantxara. Txanponaren bi aldeak: zulutik atera ezinean dabilzan Jaka eta Martija, batetik, eta erakustaldia bata bestearen atzetik egiten dabilzan Elezkano II.a eta Zabaleta lider ahaltuak bestetik. David eta Goliat. Ez dago esan beharrik



Martija eta Zabaleta arakildarrak elkarren kontra ariko dira. ASPE

Elezkano II.a eta Zabaleta direla faborito nagusiak; euren joko eta momentu bikaina definitzeko adjektiborik gabe geratu gara. Hala ere, Jaka eta Martija sorpesa ematen saiatuko dira. Lizartzarra eta etxerberriarra tartean daudenean ezin da inolaxatu, baina garaipena lortzeko Etxarrengo atzelari indartsua eta behetik gora egiten ari den Zaratamoko aurrelaria bere onetik atera beharko dituzte, eta hori, gaur egun, asko esatea da. Bi atzelari arakildarren arteko lehiak gozatzeko gogotsu daude

pilota zaleek, eta ea biek euren maila eman eta katedrak lehia ederraz gozatzeko aukera duen.

Bukatzeo, Joseba Ezkurdiak eta Ladis Galarzak ez dute lan erraza aurretik. Altuna III.aren eta Mariezkurrena II.aren kontra ariko dira astelehenean Zestoan (22:30ean, ETB1). Altunak eta Mariezkurrenak ez dute partekatutako lidergoa galdu nahi eta, aldiz, puntuatu beharrean daude aurrelari arbuzarra eta atzelari barabardarra. Hortaz, tentsio handiko partida espero du katedrak.

IKASTOLAK

hezkuntza eraldatzen

MARTXOAK 5 - TXIOKA HAUR IKASTOLA
16:00-18:00

MARTXOAK 6 - TXIOKA HAUR IKASTOLA
10:00-13:00

ATE-IREKIAK

edo adostu

**BISITA
PERTSONALIZATUA**

948 56 29 51 / 689 45 41 68 / 606 03 09 66
txioka.haur.ikastola@inigoariza.eus
ikastola@inigoariza.eus

Taldea
txikietan
antolatuta

Astiz eta Eraso duatloi txapeldunak Altsasun

DUATLOIA Altsasuko 1. Duatloi Krosa irabazi zuten, Nafarroako Duatloi Kros Txapelketa zena. Erreleboetan Pablo Zubillaga eta Peio Lopez gailendu ziren, eta emakumezkoetan Ines Moreno eta Leire Estarriaga

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Sakana Triatloi Taldeak eta Nafarroako Triatloi Federazioak igandean Dantzalekun antolatutako Altsasuko 1. Duatloi Krosa duatloiarren festa ederra izan zen. Eguraldiak eutsi egin zuten eta Dantzaleku, Usolarrain eta San Pedroko paraje zoragarrietan jokaturako proba arrakastatsua izan zen. Aurreko astean kroseau ibili ziren duatletek nabarmendu zuten, ibilbidea lehorregia zegoen, korrika egiteko eta bizikletan egiteko gogorregia akaso. Baina guztiek gozatu ederra hartu zuten. Segurtasun neurriak beteaz kirola egin daitekeela nabarmendu zuten atzera ere



Aritz Etxeberria eta Leire Estarriaga, erreleboetan.

antolatzaileek eta guztia behar bezala ateratzeko 25 pertsona aritu ziren lanean. Ikusle dezentek hurbildu ziren Dantzalekura eta giro oso polita egon zen. Aipatzekoa da ere Nafarroako Triatloi Federazioak proba streaming bidez eskaini zuela.

NKJ: Hegoi Lakuntza txapelduna Goiztiarrenak Nafar Kirol Jolasetan parte hartu zuten kadeteen eta jubentilen mailako 36 neska-mutikoak izan ziren. 1,8 km korrika, 8 km bizikletan eta 1 km korrika osatu behar izan zituzten. Hegoi Lakuntza Zelaia altsasuarrrak (Saltoki Trikideak) erakustaldi polita eman zuten eta proba irabaztea lortu zuten (34:06), bere taldekide Aiert Mendiorotzen (34:41) eta Sergio Ajonaren (34:53) aurretik. Emakumezkoetan Jennifer Lopez-Roso (Ur Gazia) izan zen azkarrena (38:59).

Erreleboetan 30 bikote

Ondoren erreleboen proba jokatu zen. 30 bikotek hartu zuten parte, bata korrikako segmentua eta besteak bizikletakoa osatuz. Bikote horietatik 18 sakan-darrez osatutako bikoak ziren.

Herritarren parte hartzea sustatu nahi zuten antolakuntzak, eta helburua lortu izanagatik oso pozik zeuden.

Osasun neurriak jarraituz, partaideak hirunaka atera ziren Dantzalekuko pistetatik, 10 segundoko tartearekin. Korrikako segmentua osatu zuten zirkuituari hiru buelta egin zizkieten (4,2 km), ondoren bizikleta segmentukoek 12 km osatu zituzten eta, bukatzeko, korrikalarietara buelta bat eman zioten zirkuituari eta pistei itzuli bat (1,5 km). Probak irudi oso politak utzi zituen, lehia polita izan baitzen. Azkenean, gizonezkoen erreleboetan Pablo Zubillaga eta Peio Lopez izan ziren azkarrenak (50:19), nagusitasun handiz, ia 3 minutu atera baitzizkieten Ibai Goñi eta Aitor Blancori (53:09). Tomas Guirado eta Ivan Sobredo altsasuarrrak laugarrenak izan ziren, podiuma zapatzear (45:39). Errelebo mistoetan Erreka Gil eta Maialen Elia gailendu ziren (56:32) eta emakumezkoetan Ines Moreno eta Leire Estarriaga etxarriarra (1:03:02).

Irteera hartu zuten 30 bikoetatik 27 sailkatu ziren. Aipatzekoa

"Niretzako moduko zirkuitua zen, esplosiboa eta gogorra"

MIKEL ASTIZ ERRO TRIATLETA

Altsasuko 1. Duatloi Krosan ziztu bizian atera zinen...

Pandemiagatik formatua aldatu da eta ez ginen guztiak batera atera, txandaka baizik. Gaintzekoen erreferentziarik ez zegoenez, hasieratik ahal den azkarren atera nintzen. Bestalde, ia urte osoa neraman dortsala jarri gabe eta egia esan, lehiatzeko gogotsu nengoan. Eta gainera proba hemen izanda, Altsasun, ezagunen aurrean... pasada bat izan zen.

Zale oso animatuak zenituen, behin eta berriz zu animatzen.

Bai (kar, kar...) Ezin naiz kexatu. Etxekoek ezin izan zuten Dantzalekun egon, baina etxetik jarraitu zuten lasterketa, streaming bidez. Lasterketa Youtuben dago ikusgai, "Deportenavaro" kanalean. Irudiak oso politak dira. **Gainontzekoen denboraren erreferentzia faltak urduri jarri al zintuen?**

Ni normalean ez naiz urduri jartzen, baina aitortu beharra dut igandean

pittin bat banegoela. Bihurguneetan gertukoak kontrolatzen nituen, baina atzekoak nola dauden ez dakizu. Banekien ongi nenbela eta errenta polita nuela, baina helmugara iritsi eta sailkapena ikusi arte ez zaude lasai. Guztiak batera ateratzen garen irteera bat akaso politagoa da, ikusgarriagoa, eta taktikak bestelakoak dira, baina erlojupekoan ateratzeak proba jokatzeko modua aldatzera behartzen gaitu. Bakoitzak ahal duen indarrarekin aurrera egiten du, eta ongi ibiltzeko zure gorputza gehiago ezagutu beharra duzu. Alde horretatik, akaso hobe datorkit; nire gorputza ongi ezagutzen dut, eta badakit nire mugak non ditudan.

Zirkuitua ederra zen, baina lurra oso gogorra zegoela entzuten zen.

Duela bi aste Altsasuko kroseau parte hartu nuen, maila herrikoian. Aurretik zirkuitua probatzen ibili ginen eta orduan lokatz asko

zegoen. Igandeko duatloian oso lehorra zegoen, baina niretzat eroso. Niretzako moduko zirkuitua zen, esplosiboa eta gogorra.

Nagusitasunez irabazi zenuen eta Nafarroako Duatloi Kros txapelduna zaitugu. Maila hori izatea espero zenuen?

Oso pozik nago. Neguan dezentek entrenatu dut, igeriketa bereziki, nire alderik ahulena delako. Banekien aurrean egongo nintzela, baina ez nuen uste horrenbesteko aldea aterako nuenik. Oso ongi sentitu nintzen, eta, orduan, sinistu nuen. Altsasukoa izan da irabazi dudana lehen duatloi lasterketa, etxean, eta oso pozik nago. Duela bizpahiru urte Nafarroako Duatloi Luzeko Nafarroako txapelduna izan nintzen. Ez nuen proba irabazi, baina lehen nafarra nintzenez, txapela jantzi nuen. Baina lasterketa absolutu bat irabaztea beste gauza bat da. Aurretik ere konfiantza nuen, baina garaipen batek konfiantza gehiago ematen du.



"ALTSASUKO NIRE LEHENDABIZIKO GARAIPENA IZAN DA, ETA GAINERA HEMEN, ETXEAN"

Nola ospatu zenuen?

Bosgarren sailkatu zen Xabier Orduñarekin batera. Biok Altsasun bazkaldu genuen, bokata pare bat, oso gustura. Kirol honetan lagun asko ditut, eta oso harreman ona. **Bizikletan aritzen omen zara hobe korrikan baino, baina igandean bietan eroso ikusi zintugun.**

Urte pare bat daramatzat korrikan asko hobetu dudala. Pare bat kilo jaitsi ditut, finago nago eta errazago egiten dut korrika. Eta hori lasterketetan nabaritzen da. Nahiz eta igandean hala ez izan, normalean podiuma segundo gutxiren aldearekin erabakitzen da, eta abiadura pixka bat gehiago badaramazu, nabaritzen da.

Nola ikusi zenituen gainontzeko duatletak?

Sorpresaren bat hartu zenuen?

Azkenean denok ezagutzen dugu elkar. Zalantza bakarria Nafarroan federatuta dagoen Hendrik Becker alemaniararekin nuen. Nirekin batera atera zen, eta ez nintzen oso fio. Horregatik ere erabaki nuen hasieratik indartsu ateratzea, berak nola erantzuten zuten ikusteko. Atzean nuen, nahikoa

da bizikleta segmentuan Urko Berdud eta Arkaitz Munarriz erretiratu zirela, mina hartuta. Azken honek erorikoa izan zuen eta lepaustuaren zuen mina artatzen anbulantzia eraman zuten.

Mikel Astizen nagusitasuna

Eguerdiko 12:30ean abiatu zen 1. Altsasuko Duatloi Krosa, aldi berean Nafarroako Duatloi Txapelketa zena. Erreleboetako probako distantzia bera zuten, 17,7 km guztira. 66 duatleta zeuden izena emanda eta horietatik 59 sailkatu ziren. Hauek ere txandaka atera ziren, baina hasieratik ikusi zen Mikel Astiz arakildarra (Donibane-Onhaus) ziztu bizian atera zela. Ihabarkoak lehia oso estua izan zuen Diego Latasarekin eta Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate sakandarrarekin. Euren artean erabaki zen proba. Mikel Astizek aurrea hartu zuen berehala, eta gutxika errenta ateratzen hasi zen, helmugara bakar bakarrik iritsi zenera arte (51:30). Bigarrena Diego Latasa izan zen (52:35) eta hirugarrena Sergio Garcia de Eulate (52:52). Beraz, podium sakandarra izan zen.



Felix Benjumea eta Iñaki Alvaro Usolarraindik pasatzen, proba nagusian.

Emakumezkoetan 18 urteko Idoia Eraso iruindarra gailendu zen (1:03:40), Nafarroa Ermitagaña taldeko junior mailako txirrindularia. Lasterketa polita izan zela nabarmendu zuen. Bi minutu atera zizkion Claudia Marti-

nezi (1:05:47), baina azken honek lortu zuen Nafarroako txapelduaren saria, Eraso soilik Altsasuko probarako federatu zelako. Sakana Triatloi taldeko Silvia Perez bosgarrena sailkatu zen (1:16:07).

Peio Bergara, beteranoen txapelduna

Aipatzekoa da Sakana Triatloi Taldeko Peio Bergara Nafarroako txapelduna izan zela beteranoen 3. mailan (1:15:52), helmugan 55. postuan sartu eta gero.

Altsasuko I. Duatloi Krosa: sakandarrak

1. Altsasuko 1. Duatloi Krosa, Nafarroako Txapelketa

Gizonak

1. Mikel Astiz	51:30
3. Sergio G. de Eulate	52:52
8. Felix Benjumea	55:20
16. Iñaki Alvaro	57:02
23. Mikel Lakuntza	1:00:38
28. Juan Luis Maiza	1:02:55
42. Jorge Iradi	1:06:05
53. Raul Moro	1:11:47
55. Peio Vergara	1:15:52

Emakumeak

35. Idoia Eraso	1:03:40
56. Silvia Perez	1:16:07

2. Erreleboak

1. Pablo Zubillaga / Peio Lopez	50:19
4. Tomas Guirado / Ivan Sobredo	53:39
9. Xabier Borrega / Javier Borrega	56:06
10. Beñat Iglesias / Gorka Martinez	56:13
11. David Crespo / Isidro Asurabarrena	56:15
12. Iker Eraso / Aritz Etxeberria	56:23

18. F. Javier Gonzalez / Gregorio Rodriguez	1:00:05
19. Xabier Mazkarian / Adrian Claver	1:00:09
24. Ines Moreno / Leire Estarriaga	1:03:02

3. Nafar Kirol Jolasak

Jubenilak mutilak:

1. Hegoi Lakuntza (Saltoki)	34:06
-----------------------------	-------

Jubenilak neskek:

1. Jennifer Lopez-Rosso (Ur Gazia)	38:59
------------------------------------	-------

Kadeteak mutilak:

1. Aiert Mendioroz (Saltoki)	34:41
3. Ekain Imaz (Sakana)	37:33
5. Alain Razkin (Sakana)	38:59
8. Hegoi Garcia (Sakana)	42:38
9. Ekaitz Perez (Sakana)	45:06
11. Oier Carabias (Sakana)	47:21

Kadeteak neskek

1. Ane Arrosagaray (Saltoki)	42:13
------------------------------	-------

*Oharra: Sailkapenean ez zen kirolarien jaioterrien daturik ematen; beraz, sakandarren bat ez agertzea gerta daiteke.

sufritzen, eta pentsatu nuen: "hau da nire aukera". Sergio Garcia de Eulatekin tarteka elkarrekin entrenatzen dugu; zirkuitua batera ikusi genuen. Banekien nortzuk egongo ginen aurrean. Gutxi gorabehera aurreikusitakoa bete zen, baina ezagutzen ez dudana batean bat sartu zen aurrean, beti sorpresaren bat egoten baita.

Emakumezkoetan Idoia Eraso izan zen txapelduna, 18 urterekin. Jose Javier Zabaleta pilotaria han zegoen lehengusina animatzen...

Bai, Josek askotan hitz egiten dit bere lehengusina, bizikletan bereziki ongi ibiltzen dela. Nik igandera arte ez nuen ezagutzen, eta oso ongi ikusi nuen. Oso gaztea da eta progresio handia du.

Hemendik aurrera zein izango dira erronkak?

Datorren duatloia martxoaren 6an jokatu da, Basaburuako Duatloia. Martxoaren 20an Altsasuko Duatloia izanen da, Ibarrean, eta badirudi Arbizukoa ere aterako dela... Baliteke proba batzuk atzeratzea, baina entzuten denez, ia proba guztiak egingen dira. Niri duatloia asko gustatzen zait,

triatloia baino gehiago. Duatloi denboraldirako sasoiaren egoten naiz, eta gero, triatloian, half distantziako zenbait proba aukeratzen ditut eta horietan dena ematen saiatzen naiz, Iruñekoan, esaterako. Aurten ere Tarragonan Delta del Ebro triatloia egiteko asmoa dut.

Behintzat martxan zaudete, eta hori ez da gutxi.

Gu ezin gara kexatu. Badaude beste kirol batzuk egoera okerragoan daudenak. Federaziotik aipatzen digute probak antolatzekeko gogotsu daudela, ea horrela den.

30 urte dituzu. Kirol honetan aritzeko akaso unerik onenean zaude, ez?

Nire momenturik onenean nago. Esaten da gure kirolean 30 eta 32 urte tarte horretan izaten direla urterik onenak eta nik, behintzat, horrela ikusten dut. Sei urte daramatzat mundu honetan eta orain arte hobetzen joan naiz. Ez dakit zenbateko progresiorako tartea izango

"30 URTEREkin, USTE DUT KIROL HONETAN NIRE MOMENTURIK ONENEAN NAGOELA"

dudan, gutxi izanen da, ziur. Bitartean aprobetxatzen.

Krolean baino hobe ibiltzen al zara asfaltoan?

Aurten hiru kros egin ditut, urrian bi, Beasainen eta Ibarrean, gero Altsasuko krosa eta igandean duatloi krosa. Gustura ibiltzen naiz mountain bikearekin, baina nahiago dut asfaltoa. Mendi lasterketetan ere aritu izan naiz, baina ez ditut behar bezala prestatzen eta ahal dudana egiten dut. Etxarriko Mendira Joan Etorria, Olatzagutia-Urbasa, eta Triku Trail, azken hau bitan, egin izan ditut. Aurten ere nahiko nuke mendi lasterketaren bat egin.

Lana, entrenamenduak... lehertuta bukatuko duzu.

Merezi al du?

Bai. Sakana Kooperatiban lan egiten dut, hiru txandatan. Baina kirol gabe eta lehiatu gabe ezin dut bizi, eta niretzat ez da inolako sakrifizioa. Oso lehiakorra naiz, betidanik entrenatu eta lehiatu izan naiz, eta gorputza ohitu egiten da. Orain lehen baino ordu gutxiago sartzen ditut entrenatzen. Ez ditut horrenbeste ordu behar, gorputza egina dudalako.



Sergio Garcia de Eulate 3. sailkatu zen.

Izena ematea zabalik

Martxoaren 20an X. Altsasuko Gabirondo Duatloia jokatu da (10:45ean Nafar Kirol Jolasak eta 15:45ean proba nagusia, Ibarrea industrialdean). Izena ematea zabalik dago www.navarratriathlon.com webgunean.



Arregik dio "egoerari egokitu beharra" dagoela

ARETO FUTBOLA Azken bi partidetan defentsako planteamendua egin dutela azaldu du Osasuna Magna Xota taldeko entrenatzaileak eta fruitua jaso dutela, bi garaipen "oso garrantzitsu" lortu dituztelako. Gaur, ostirala, 20:30ean Betis Futsal hartuko dute

Osasuna Magna Xotak Jaen Paraiso Interior eta Aspil-Jumpers Ribera Navarraren kontra jokatu du aste honetan eta bi garaipen oso garrantzitsu lortu ditu, sailkapenean gora begira jartzea ahalbidetu diona. Ohiko joko erasokorraren aurrean, zuhurrago jokatu dute Imanol Arregiren mutilek. Entrenatzaile irurtzundarrak ere hala aitortu zuten asteartean, Aspil-Jumpers Ribera Navarraren kontrako derbiaren ondoren. Talde berdeak atzeratuta jokatu zuten, defentsan, eta kontraerasoarekin saiatu zen. Aspil-Jumpers erasoan saiatu zen, baina Osasuna Magnak oso ongi eutsi zuen.

"Defentsarako planteamendua egin genuen. Jaenen kontra ongi atera zitzaigun, eta orain irabaztea da behar duguna, puntuak lortu, play-off postuetan sailkatu ahal izateko. Egoerari egokitu beharra dago, eta gauzak ez badira ongi ateratzen plangintza aldatu beharra dago, ez dago besterik" aitortu zuen entrenatzaile irurtzundarrak.

Sei puntu jarraian

Imanol Arregik gaineratu zuen Tuterako taldearen kontrako partida berdinketarekin despeditzeko modukoa zela, baina azken 4 minututan atezain-joka-



Imanol Arregi, Osasuna Magna Xotaren partida bat gidatzen. ARTXIBOA

lari postuarekin arriskatzea erabaki zuen, eta hor iritsi zen garaipenaren gola, Fabinhok lortutakoa. "Arriskatu dugu eta ongi atera zaigu. Orain arte ongi jokatzetik baina emaitzak ez lortzetik gentorren, eta garaipen hau eta Jaengo larunbatekoa oso garrantzitsuak dira, bai sailkapenari begira eta bai taldearen animoari begira" nabarmendu du Imanolek.

Gaur Betisen kontra, etxean

1. Mailako Areto Futboleko sailkapenean Levante da liderra (47

puntu) eta Osasuna Magna Xota 10. postura igo da (24 puntu), partida bat gutxiagorekin. Ostiralean talde berdeak sailkapenean 29 punturekin 8. postuan dagoen Real Betis Futsal taldea hartuko du Anaitasuna pabilioian, 20:30ean. Bi garaipenen segidan, ea zaleen babesarekin jokoan dauden beste hiru puntuak eskuratu eta talde berdea play-off postuetara gerturatzen den.

Osasuna Magna eta Betis Futbolen arteko partida zuzenean ikusi ahalko da LaLigaSportsTV eta Navarra TV telebista kateetan.



Altsasuko aldagelak igandeko partidarako prest daude. ALTSASU KIROL ELKARTEA

Altsasuk erregional mailako ligari ekingo dio, gogotsu

FUTBOLA Liceo Monjardin taldea hartuko du igandean, 16:00etan, Dantzalekun. Gazteen maila ere abian da

Duela bi aste 1. Maila Autonomikoko eta Preferente mailako 2020/2021 ligak hasi eta gero, asteburu honetan Erregional mailako liga eta Gazteen mailako ligak hasiko dira. Urtebeteko geldialdiaren ondoren, futbola gutxika bueltan da eta gure klubak eta zaleak oso kontentu daude, partidak zuzenean jarraitu ahal izango direlako; hori bai, zaleek eskatutako osasun arau guztiak bete beharko dituzte.

Altsasu Kirol Elkartearen pozik daude euren bi talde martxan jarriko direlako: erregional mailako Altsasu, eta gazteen 1. mailako Altsasu. Azken egunetan ohi baino mugimendu handiagoa dago Dantzalekun eta jokalaria eta klubeko kideak astebururako bueltarako oso gogotsu daude. Horren isla, Altsasuko Futbol taldeak bideo bat zabaldu du sare sozialetan, "Bueltan gaude" izenburua duena.

Erregional mailan, Altsasuk etxean ekingo dio denboraldiari. Gorriek Liceo Monjardin hartuko dute igandean, 16:00etan, eta ahalik eta denboraldi txukunena egitea, hori da asmoa.

Jubenilak ere lanera

Liga hasteko gogotsu daudenak ere 1. mailako gazteen mailan debutatuko duten Lakuntzako Lagun Artea eta Altsasu dira. Biek kanpoan hasiko dute liga. Altsasuk larunbatean Zangozan jokatu du, 16:30ean, Cantolaguaren kontra. Eta Lagun Arteak igandean Oberena izango du aurkari, 12:30ean, Oberenan.

1. maila autonomikoa: Lagun Artea vs Zarramonza

Ligako 3. jardunaldian Lagun Arteak Zangozako Zarramonza hartuko du igandean Zelai Berrin, 16:15ean. Ea lakuntzarrek lehen puntuak eskuratzen dituzten.

Uharteko Aralar Mendi ikusgarri 3. mailako Txapelketan

ARETO FUTBOLA 3. Mailako 7B azpimultzoan bigarrena da Aralar Mendi. 7A azpimultzoan Xota laugarrena da

Aretoko Futboleko 3. mailako Txapelketan bi talde sakandar lehiatzen dira: Uharteko Aralar Mendi eta Irurtzungo Xota. Aralar Mendi 7B azpimultzoan ari da, eta, nabarmentzekoa da uharteko arakildarrak sekulako

denboraldia egiten ari direla. Aurreko asteburuan 12. jardunaldia zuten jokoan eta Aralar Mendik 8 eta 4 irabazi zion Itarora Uharteko Uharteko Arakildar pilotalekuan jokatu duen partida azkar, lehiatu eta ikusgarrian.

Eneko Cruz, Jose Mari Gorriti, Antton Igoa, Mikel Hermoso de Mendoza (2), Jorge Mariñelarena (3) eta Xabier Cruz izan ziren golegileak.

Areto Futboleko 3. mailako 7B azpimultzoko lider San Juan taldea da (27 puntu) eta bigarrena Aralar Mendi da, 5 puntutara (22 puntu), partida bat gutxiagorekin. Asteburuan ligako azken aurreko jardunaldia dago jokoan eta Aralar Mendik Olite hartuko du larunbatean, 18:00etan, Uharteko Arakilen.



Uharteko Aralar Mendi taldearen irabazi eta gero. ARALAR MENDI

Xota vs Ribera de Navarra, larunbatean Irurtzungen

Irurtzungo Xota 3. mailako 7A azpimultzoan ari da. 8 jardunaldi jokatu, Ribera de Navarra da liderra (18 puntu), eta 4. postuan dago Xota (12 puntu). Hain zuzen ere larunbatean Xotak Ribera de Navarra liderra hartuko du, Atakondoa pabilioian, 16:00etan hasiko den partidaren. Euren talde nagusiek asteartean Tuteran jokatu duen derbia errepikatuko dute, baina kasu honetan Irurtzungen eta 3. mailan.



Sutan taldeko kideak dantzan. MAITE MARTINEZ

"Grabaketa egun bat beti da berezia"

IGONE, LEIRE ETA NEREA SUTAN DANTZA TALDEA

Dantza taldea estatu mailako The Jungle Battle lehiaketan parte hartzen ari da. Dantza bideoak sortzen eta lehiaketetan parte hartzen egoerari buelta eman diote

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Igone Augusto, Leire Bujanda eta Nerea Llamas Altsasuko dantzariak Sutan taldea sortu zuten 2018. urtean. Gaztea Dantzan bideo lehiaketan publikoaren saria irabazi zuten. 2019. urtean Burgosko Dance Cup Spain lehiaketara "probatzera" joan ziren. 2020an lehiaketa ezagututa itzuli behar ziren. Baina dantza lehiaketa hori eta beste asko bertan behera gelditu ziren. Dantza taldeak egoerari aurre egin dio, eta dantzariak dantza bideo sorkuntzan eta bideo lehiaketan motibazioa aurkitu dute.

2020an hainbat lehiaketetan parte hartzeko prestatzen ari zineten. Nola daramazue egoera?

Egoerak gure proiektuak aldatzea ekarri du, eta ondorioz ez gaude beste urteetan bezain aktiboak. Baina, hala ere, egoerara ahalik eta hoberen moldatzen saiatu gara, eta geldirik ez egoteko eta gustatzen zaiguna egiten jarraitzeko alternatibak bilatu ditugu. **Lehiaketa batean parte hartzen ari zarete. Nola sortu zitzaizuen aukera? Zergatik parte hartu duzue?**

Egoeragatik Instagram sare sozialak indar handia hartu du. Lehen inspirazioa ikuskizunetan eta lehiaketetan hartzen genuen, eta orain hori ere aldatu da. Emanaldiak ez daudenez jendea edukia

Instagramreko kontuetara igotzen hasi da. Orduan, gauza, proiektu eta kontu berriak sortu dira. Beraz, gu ere hasi gara bertatik inspirazioa hartzen. Behin Instagramreko *story*ak begiratzeko dantzari batek online bidezko lehiaketa bat sustatzen zuela ikusi genuen. Estatu mailan oso lehiaketa garrantzitsua da, egoera honetan dantza bultzatzeko lan handia egiten ari delako, eta horrek parte hartzera animatu gintuen.

Zer egin behar izan duzue?

The Jungle Battle-k bost fase ditu. Lehenengorako, orain gaudenerako, bi minutu eta erdiko bideo bat prestatu behar izan dugu eta jendeak bere bozka eman dezake. Denbora gutxian lan handia egin dugu. Normalean proiektuetarako denbora gehiago behar dugu prestaketarako, baina lehiaketaren berri epea bukatu baino aste gutxi batzuk lehenago izan genuen. Emaitzarekin oso harro gaude.

Eta zer moduzko esperientzia izaten ari da?

Esperientzia ona izaten ari da. Dantza egitea bada, ona da. Gainera, grabatzen diren proiektuak gustatzen zaizkigu; grabaketa egun bat beti da berezia. Zortea badugu hurrengo fasera pasatuko gara, eta beste bideo bat egin beharko dugu.

Etorkezunean zer?

Ez daukagu aurreikuspenik. Hurrengo fasera pasatzen bagara oso zoriontsu izango gara, baina aurretik zerbait desberdina egin ahal izateak ere asko poztzen gaitu. Gehien bat, egoera honetan dantza bultzatzeko mugimendurekin bat egiteko izena eman genuen, beraz, gure helburua bete dugu.

Zenbat entrenatzen duzue?

Ez daukagu entrenamendu finikorik. Irantzu Gonzalez Dantza Eskolan egiten ditugu entrenamenduak, eta neurri berriekin 21:00etan itxi egiten da. Aurretik klaseak daude, beraz, asteburuetan edo gelak libre daudenean entseatzeko saiatzen gara. Kontuan hartu behar da ere bakoitzak bere lana duela, eta batzuetan kosta egiten da ordutegia adostea. Lehiaketa hau prestatzeko, denbora gutxiko lan handia izan da. Gabonen ondoren hasi ginen koreografia prestatzen eta entrenatzen, eta hiru edo lau astetan bideoa grabatu behar genuen epeak betetzeko.

Eta klaseak jaso dituzue?

Hirurak batera Madrilen hiru asteburuetako intentsibo bat egin genuen Wosap akademian. Oso aukera aberasgarria izan zen. Irakasle eta ikasgai desberdinak izan genituen eta mundu berri

bat ireki zitzaigun: klaseak emateko modu desberdinak, irakasle bakoitzak zuen estiloa, pauso eta koreografia berriak, giroa... Oso esperientzia polita eta interesgarria izan zen. Errepikatze moduko, zalantzarik gabe.

Zein da zure estiloa?

Gure estiloa batez ere dantza garaikidean oinarritzen da. Hortik, beste estilo batzuetara ireki gara: klasikoa, lirikoa... Pixkanaka urban estiloko hainbat pauso ikasten ari gara eta koreografieta sartzen ditugu; garaikidea ahaztu gabe. Gutako bakoitzak dantzatzeko estilo bat du, eta koreografia garbiak egiteko hiruen arteko oreka bilatzen dugu beti.

Nola sortzen duzue?

Koreografiak sortzea da gehien gustatzen zaiguna; nahiz eta lan zaila den. Musikari asko erreparratzen diogu: letrari, erritmoari,

doinuari... Ondoren, koreografiaren estiloa finkatzen dugu. Hori eginda musika aldi askotan entzun eta bakoitzak dituen ideiak lotzen ditugu. Batek pauso bat proposatu, besteak beste bat eta besteak beste bat. Horien arteko lotura eta jarraipena bilatzen dugu. Behin eta berriz errepikatzen ditugu pausoak musikarekin ongi bat egiteko. Inspirazioa bakoitzak bere etxetik ekartzen du. Egun batzuetan zaila egiten zaigu, beste batzuetan erraza.

Etorkezunean zer?

Egoera honekin, zaila da etorkizunera begiratzea. Hainbat txapelketa bertan behera geratu dira, eta besteek ez dute data zehatzik. Espero dugu lehiaketa honetan finalera iristea, eta, bestela, gauzak prestatzen jarraituko dugu, beste batzuk sortzen badira, parte hartzeko.



BAZTERRETIK

ZIORDIKO LIBURUTEGIA

Ziordiko liburutegitik gomendioak

Hasteko euskaraz irakurri dudana azkenetako liburua aurkeztu nahi dizuet: *Turista klasea*, Kattalin Minerren eleberria. Oro har bidaia bat da, bai espazioan eta bai pertsonaiaren barnealdean. Pertsonaia nagusiak, 20 orduetan, 1.600 km egiten ditu preso dagoen lagun bat bisitatzeko. Azken bisita moduan aurkezten du bidaia hori eta denbora eta espazio horretan, pertsonaiaren bizipenak bere kontrastesekin ikusi ahal izango ditugu. Pariserako bidaia horretan, hango giroa eta arazoak ere islatzen ditu. Oso ongi idatzia dagoela iruditu zait eta agian, motz ere gelditu zaidala esango nuke.

Gaztelaniar berriz, Carmen Molaren trilogia gomendatu nahi dizuet. *La novia gitana*, lehenengo liburua da, *La red púrpura*, bigarrena, eta *La nena*, azkena. Hirurak nobela beltza oso berezia dira. Gogorak, izugarri gogorak, eta pentsatzen ez duzun muturreko egoereta eramango zaituztena. Liburua irakurtzen hasten zarenetik, gelditu ezin zaren horietakoa da. Atsedanik

gabe, gustura irakurtzen duzuna eta horretaz gain, bukatzean, erabat harrিতa eta txundituta uzten zaituena. Ni ez naiz nobela beltzaren oso zalea baina *La novia gitana* liburuarekin hasten den trilogia berezia da. Hori bai, zuen irudimenean bortizkeria jasan beharko duzue eta horretarako prest egon beharko duzue.

BAT ziberbullyingaren aurka

(Alex Hallatt) gaztetxoendako liburu oso interesgarria da. Hamar urte inguruko haurren aurka proposa. Bat taldearen abenturak kontatzen dizkigu liburuak eta, aldi berean, ziberbullyinga lantzen du. Modu dibertigarri baten bidez, haurren, mezu didaktiko moduan iristen da ziberbullyinga zer den eta nola aurre egin azalduz. Bat taldeak, badu beste abentura liburu bat, *BAT bullyingaren aurka*. Haurren aurka liburuak, helburu didaktikoekin.

Eta bukatzeko, *Mafaldaren* edozein komiki irakurtzea animatzen zaituztet. Nahiz eta urteak pasa gaurko egoerara primeran egokitzen dira. Txikitik askotan irakurtzen nuen orain irakurri eta nire buruari galdetzen diot: Nola demontre balio dezake duela urte pila irakurritakoak oraintxe, une honetan? Mundua nola dagoen eta nolakoak garen gogoeta egiteko oso lagungarriak izango zaizkizue.

Etxarri Aranazko lokal batean

Hamabost urteren ondoren Hesianek agur esan du. Sorreran talde sakandarra izan zen. Hasierako urteetan "ezusteko" gorakada "izugarria" izan zuen, eta Euskal Herriko gaztetxeetan eta txosnaguneetan ezagunak egin ziren

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

2006 urtean Altsasuko Xabi Seko baxu jolea eta Aritz Etxeberria Etxebe bateria jotzailea eta Etxarri Aranazko Fran Urias abeslaria eta gitarrista herriko lokal "txiki batean" bildu ziren musika egiteko. "Hiru lagun ginen hasieran, gero bost, gero zortzi...", gogoratu du Xabi Sekok. "Halaxe hasi zen". Etxebek "oso presente du" sekoren eta Uriasen deia jaso zuen momentua: "Gustuko nuen Dubet taldean jotzetik zetozen biak, eta beraiekin zer edo zer berria egiteak izugarritzko ilusioa piztu zidan". Bertsioak jotzen hasi ziren. Uriasek ere "oroitzapen oso politak" ditu. Lagunendako eta Sakana mailan kontzerturen bat jotzeko sortu zuten taldea.

"Nahiko xelebrea izan zen. Gogoratzen dut parranda batean Fran eta Xabi hurbildu zitzaizkidala eta beriekin taldean abeslari proposatu zidatela. Tarte batez hitz egin ondoren, oker ez banago, baiezkoa eman nien". Amets Larrazak etxarriarra taldearen ahotsa bihurtu zen. Neska baten ahotsa zuten rock talde gutxi zeuden, eta taldearen bereizgarrietako bat bihurtu zen: "Hasieratik egin genuen zerbait berezia, komatxoaren artean, neska eta mutil ahotsak uztartuz", azaldu du Uriasek. Larrazarekin batera Erik Andueza gitarrak jole arbizuarra sartu zen eta lokal batean bertsioak egiteko geratzen zen hirukote batetik, boskote bat izatera pasa zen.

Hasierako momentutan dena oso azkar joan zen. Arbizun antolatuta zen Autodeterminazio egunerako abesti bat egitea proposatu zitzaien, eta abestiari indarra emateko haize instrumentuak sartzea erabaki zuten. Kanta egiteko Aritz Igoa Igotxo

saxofoi jole etxarriarra, Eneko Garzia tronpeta jole olaztiarra eta Mikel Azpiroz Buton tronboi jole lakuntzarra taldean sartu ziren, zortzikotea osatuz.

Ospea

"Helburua lagunaren artean gauzak egiten egotea zen". Denbora pasa bat bezala sortu zuten taldea, Sekok azaldu duenez. Etxebe iritzi berekoa da: "Gure instrumentuak eta talde barri baten parte izateaz ekartzen duen ilusio hortaz gozatzea zen aukera bakarra, epe motzean". Baina hasieratik taldeak harrera "oso ona" izan zuten. "Egun batetik bestera astebururo geunden Euskal Herri osotik kontzertuak ematen. Topera geunden", esan du Uriasek. Garai horretan taldekide asko Unibertsitatean zeunden, eta bat-bateko arrakastaren arrazoietako bat hori izan zela azaldu du Uriasek: "Jende asko ezagutzen duzu eta, orduan, diskoa lagun bati eman eta berak bere herriko tabernetan eta gaz-

tetxean jarriko zuen". Horrela hasi ziren mugitzen eta "konturatu ginenerako" kontzertuetan haien letrak zekizkiten. "Ez genuen inolaz ere espero. Momentu horretan ez genuen irrati formulatan eta ez zegoen Youtuberik eta sare sozialik".

Seko eta Urias Dubet taldean aritutakoak ziren, Etxebelagunen artean sortutako Ekintza Zuzena taldean aritu zen, Garziandiak La Bamba Negra eta Tortazo taldeetan batera jotzen zuten aurretik eta Larrazak bere anaiekin kantu txapelketetan parte hartzen zuten, "baina talde bateko kide nintzela lehenengo aldia zen". Besteendako lehenengo aldia zen. "Saxofoia ikasi nuen, baina lau edo bost urte neraman ukitu gabe eta bat-batean, egun batetik bestera, lehenengo kontzertua 1500 bat pertsonaren aurrean izan nuen. Izugarria izan zen, inpaktantea", azaldu du Igotxok. Anduezak hasieran zaila egin zitzaioela esan du, izan ere, aurretik ez zuten talde batean jotzeko esperientziarik. "Garai-ko bideoak ikusten ditudanean urduri eta geldirik ikusten zait". Denborarekin askatu eta eszenatokia egoten ikasi zuen.

"Hain azkar joan zen dena... Inondik inora ez genuen espero hain urrun iristea, eta are gutxiago hain denbora laburrean". Etxebek "bertigo" pixka bat ematen zuela esan du, baina ilusioarekin aurrera egin zuten. Sorpresa bat izan zen, eta hasieran "polita" Sekok adierazi duenez. "Edozein herritara joan eta ehun lagun topatzea kontzertuan, gero berrehun eta gero igotzen eta igotzen". Zerbait "pixka bat irreal" bezala bizi izan zuen, "astelehenetik ostiralera bakoitzak bere lana geneukan. Asteazkenean ere entseguak eta abar egiten

genituen, baina asteburuan bat-batean herri batera joan eta jendeak bazekien nor zinen, zuregana etortzen zen, argazkiak eskatzen zizkizun... eta astelehenen berritzaile fabrikara".

"Hasieran izugarria izan zen. 22 edo 23 urterekin furgoneta hartu eta Euskal Herriko festaz festa. Hasierako kontzertu horiek kontzertu eta parranda ziren. Esperientzia polita izan zen". Hala ere, Igotxok azaldu duenez, denbora pasa hala "pixka bat kargatzen" hasi zen. "Ezin dituzu planak egin eta abar". Anduezak hasiera batean "ongi" eraman zuen ospea, baina denborarekin "gehiegi" iruditu zitzaion ere.

Agurrak

Ospea taldekide batzuk beste batzuk "baino hobeto" eraman zutela azaldu du Uriasek. Gorpulean sartu zirela aipatu du Garziandiak. Biak izan dira Hesianen bukaerara arte gelditu diren bi sakandarrak. "Ez zara konturatzen. Aurrera zoaz eta inertziak eramaten zaitu. Hasieran guk egin behar genuen dena, eta pixkanaka konturatzen zara zure atzean talde handi bat dagoela antolaketa lan horiek egiten", azaldu du olaztiarrak. Hasiera batean Uriasek kudeatzen zuten guztia: "Herrietatik deitzen hasten ziren; hiru kontzertu, lau... konturatu ginen norbait hartu behar genuela. Eta teknikari bat beharko dugu? Fran Perez altsasuarra hartu genuen eta asko lagundu zigun". Taldea profesionalizatzen joan zen, eta profesionalizazioaren bidearen mugarrira taldekideen agurrak izan zen ere.

"Pentsa ezazu ni mundu guztiak utzi nauela. Hasieratik ni bakarrik gelditu naiz. Azkeneko kontzertuan ere Eneko ezin izan zuten jo, eta bera zen gelditzea

HIRU LAGUNEK SORTU ZUTEN 2006. URTEAN HESIAN TALDEA; ZORTZIKOTEA BIHURTU ZENA

DENBORA PASA BEZALA HASI ZEN TALDEA, ETA "NAHI GABE" OSPE HANDIA HARTU ZUEN

Hesian

"Taldea izena jarri behar genuen zerrenda bat egin genuen, eta tartean Su Ta Gar taldearen 'Hesian' abestia zegoen. Aukeratu genuenean beste zentzu bat eman genion, egoeratik munduak hesi batean egotera derrigortzen gintuela uste genuelako". Xabi Seko

zitzaidan bakarra". Uriasendako "oso gogorra" izan da taldekide bakoitza joan denean, "kasu batzuetan eramangarriagoa izan da beste batzuetan baino". Larrazaren irteeran "mundua gainera erori" zitzaioela aitortu du. "Oso harreman ona geneukan, oso harreman estua, eta taldean pisu handia zeukan bai musikalki bai letrak egiten". Inflexio puntu bat izan zen, nahiz eta biek abesten zuten, "taldearen ahotsa" zelako Larrazak: "Eta orain zen?". Beste abeslari bat sartu zen Zuriñe Hildagoren aurretik, "eta ez zuten funtzionatu. Beste kolpe bat". Hidalgo sartu zenean taldeak gorakada bat izan zuela azaldu du etxarriarrak.

Taldea utzi zuten lehenengo musikaria Buton izan zen. Gati-llazoko baxu jolea izateko utzi zuten, hasi eta urte eta erdira gutxi gora behera. 2009an Larrazak eta Anduezak utzi zuten. "Ikasketak amaitu eta lanean hasi nintzenez, sentitu nuen asteburuak lasai hartzeko gogoa nuela, beste gauza batzuk egiteko tartea izateko". Astebururo kontzertu bat edo batzuk zizutuzten, eta taldearen erritimoa oso azkarrak zela azaldu du Larrazak. Ospearen albo ondorioak aipatu ditu Anduezak ere taldea uzteko arrazoietako bat bezala: "Gehiegi iruditu zitzaidan niri. Hutsetik ehunera pasa ginen". Bi urtetan berrehun kontzertu baino gehiago eman zituzten, eta gainera lanarekin ere hemendik hona aritzen zen arbizuarra: "Ezinezkoa zen". Larrazak musikarekiko lotura izaten jarraitu du, eta piano klaseak jaso ditu. "Terapia moduko bat da". Anduezak "bere proiektu propioak" egin ditu.

"Erabaki hori hartzeko urte bat edo egon nintzen. Askoi maitatu nuen gauza bat utzi behar nuen.

Diskografia

- **Musikaz Sakana Indartuz (Maite dugu kanta)**
- **Euskal Herriak Autodeterminazioa kanta**
- **Maite dugu** 2007
- **Herriaren Oihua** 2008
- **Borrokatu eta irabazi** 2010
- **Hitzetik** 2011
- **Hemen eta Orain (zuzenekoa)** 2013
- **Hegalak astinduz** 2014
- **Zerotik** 2016
- **Hasiera** 2018



Hesian taldeko hasierako kideak, 2006. urtean. UTZITAKOIA

Gogorra izan zen". Baina "bizitzaren kontuengatik" 2014an Sekok taldea utzi zuen ere. "Ondorengo egunak eta hilabeteak gogorrak izan ziren. Nostalgia puntu bat neukan". Hala ere, argi zeukan bidea hori bukatzen zela. Penarekin hartu zuen ere ueste zuelako musikaren munduan egoteko aukera galtzen zuela, baita "beste gauza batzuk" egiteko ere. "Baina zortea izan nuen eta Aguraingo talde bat aurkitu nuen ia jarraian. Bi edo hiru urtez aritu nintzen". Proiektu hori bukatu eta orain "bakarrrik etxean" jotzen du Sekok. "Musika barruan daukagu eta betirako da, baina ez dakit momentuan den edo aukera asko dauden proiektu batean hasteko".

Sekorekin batera Etxebek utzi zuen: "Buruari mila buelta eman, gertukoekin aukera honetaz hitz egin eta burukoarekin hainbat eta hainbat tira-bira izan ondoren estudioko bost disko eta zuzeneko bat atzean utzita proiektutik aldentzea erabaki nuen". Taldearen lehendabiziko "ilusio hori" denborarekin "itzaltzen" ari zela sentitu zuen batera joleak. "Buru modu batera edo bestera deskonektatzen hasten da". Altsasuarrarendako ez zen "batere erraza" izan "onarzteza" ezagutzen zuen guztia alde batera uzten zuela. Egoerari

buelta eman zion eta taldean egondako zortzi urtetan alde batera utzitako zaletasunak berreskuratu zituen, "musikaren mundutik aldentuta". Bateria etxean jotzearen "gozatzeaz" konformatzen da. Hala ere, ez du baztertzen beste proiektu batean parte hartzea.

Hamargarren urteurrenean Igotxok utzi zuen. "Etxebek eta Xabik utzi zutenetik aritu nintzen pentsatzen". Erabakia aspalditik hartuta zeukan, baina "pena" sentitu zuen. "Gehien bat taldekideekin harremana galtzen duzulako. Harreman ona daukagu, baina ez taldean geundenean bezalakoa". Ez du musikaren munduan jarraitu, baina hainbat urte saxofoia jo gabe egon ondoren, konfinamenduan hartu zuen berriz, "eta herriko gaztetxo batekin zerbait egiten aritzen gara".

Gazteteetik Gazteara

"Beraiek utzi zutenean, gainera batera utzi zutela, oso gogorra izan zen ere. Gu izan ginen taldea sortu genuenak. Lehenengo hazia izan ginen hirurak". Uriasek azaldu duenez, momentu horretan taldearen egitura "asko" aldatu zen; "beste forma bat hartu zuen".

Bi etapa oso berezituak egon dira taldearen ibilbidean. "Ger-

tatzen dena da lehenengo etapa laburra izan zela. Hiru urte inguru iraun zuen". Garai horretan Hesianen abestien letrak "oso politikoak" ziren, eta ideologikoki "oso kokatuta" zegoen. "Gure jotzeko esparrua gazteteak eta txosnak ziren. Udalek ez gintuzten kontratatzen". Bere publikoa, ondorioz, profil berekoa zela azaldu du Uriasek. "Eta jende asko zen, gure adineko jende asko".

Bigarren etapa 2010. urtean hasi zen, gutxi gora behera. Gizartearen eta egoera politikoaren aldaketekin batera aldatu da taldea: "Paralelo joan gara. Kalko jendea gara, eta hori xurgatu dugu". Bigarren etapa horretan "zale batzuk" mantendu ziren arren, aldaketa sumatu zuten taldekideek: "Dagoeneko ez ziren gure adinekoak. Gazteagoak ziren". Egoera politikoa urte horietan "oso mugitua" zela esan du Uriasek, "mugimendu asko egon ziren eta ni letrista bezala politikak ez zidan hainbeste ukitzen eta motibatzen". Beste abesti mota batzuk egiten hasi ziren, "beste letra batzuk", eta horrekin batera beste publikora eta ordu-ra arte iritsi ez ziren hedabideetara iritsi ziren ere. "Maitasunari buruz hitz egiten hasi ginen eta bat-batean Euskadi Gaztean agertu ginen". Ate asko ireki zitzaizkiela aitortu du. Gazte-

txeetan jotzetik Gaztean ateratzera pasa ziren. "Hori da".

"Eta egia da bigarren etapa horretan hamaika urte pasa dira, eta hor ere etapa desberdinak daude". Sekoren eta Etxeberen irteera "inflexio puntu" bat izan zen. "Taldea profesionalizatu zen, nolabait esateko". Musikariak "erdi" kontratatu zituzten.

Honaino iritsi da

Urias Zuriñe Hildagorekin taberna batean elkartu zen "hamaika kontu" zituztelako hitz egiteko. "Bukaeran esan nion beste gauza bat esan behar niola. Berak ere zerbait esan behar zidala esan zidan". Eta biok gauza berdina esan behar zioten elkarri. "Taldeari ez niola etor-

TALDEAREN EGITURAGATIK ETA MUSIKA ESTILO ETA LETRENGATIK BI ETAPA BEREIZ DAITEZKE

AZKEN KONTZERTUA URTARRILAREN 9AN EMAN ZUTEN, AGURRA IZANGO ZELA ESAN GABE

kizunik ikusten esan nion. Zuriñek eskerririk asko esan zidan, ez zekiela nola esan".

Bitxia da, baina Hesian taldearen azken diskoa *Hasiera* deitzen zen. "Pentsatu genuen, jendeak pentsatuko du ergelak garela". Ziklo baten hasiera zela esan zuten, amaieraren hasiera agian: "Gure zen zer edo zer egin aurretik egindakoarekin zerbait desberdina egin. Eta horrela izan zen. Agian kanpotik ez zen hainbeste ikusten, baina lehenengo aldiz ekoizle batekin lan egin genuen". Saiatu behar ziren bidetik ateratzen, eta "ongi funtzionatu bazuen ere, ez zen mahaiaren kontrako kolpe bat izan". Orduan pentsatu zuten egin beharrekoa egin zutela, "honaino iritsi da gure ekarpena".

Pandemiaren aurretik hartutako erabaki bat izan zen, beraz, egoerak ez du erabakiarekin zerikusirik izan, Uriasen esanetan: "Aurretik geneukan. Aspal-di samar hartu genuen erabakia. Eragina izan du moduan, hori bai". Agur bira edo kontzertuak egitea aurreikusitu zuten, baina "ez zegoen baldintzarik". Itxoitea "antinaturala" iruditu zitzaion.

Taldekide izandakoekin penarekin hartu zuten albistea. Alde batetik, espero zuten Etxebek azaldu bezala, "bizitza honetan dena hasi eta bukatzen" delako, baina bestetik beraien bizitzako zati garrantzitsu bat izan zen Hesian, eta "bihotzean" eramango dute. Are gehiago Garziandiarendako: "Hesian niretako oso garrantzitsua izan da, berari esker nire alaben ama ezagutu nuelako. Esan daitete Hesianek bizitza eman didala". Garziandiak ezin izan zuen azken kontzertuan jo, eta oraindik ez da bukaeraren "oso kontziente". "Nik uste pandemiarekin oraindik ez dugula guztiz sinisten. 2022ko udan kontzertuak ikusten gaudenean, eta guk ez ditugunean, hor konturatuko gara".

Azken kontzertua

Ezer esan gabe taldearen azken kontzertua izango zena egin zuten Bilboko Santana aretoan urtarrilaren 9an. "Oso emozioz nantea izan zen, eta nik uste publikoan ere nabaritu zela zerbait bazegoela". Azken unera arte azkena izango zela esan edo pentsatu zuten, baina azkenean hoberena ez esatea izan zela erabaki zuten. "Egoeratik joan zirenak joan ziren, eta aretoa bete zen".



Xabi Montesinos autoeskolako irakaslea eta Amets Oteiza Aranguren ikaslea. UTZITAKOIA

"Egoera honetan azterketa egitea zailagoa da"

Pandemiak gidabaimena lortzeko azterketak egiteko itxaron zerrendaren arazoa handitu du. Amets Oteiza Aranguren uhartearrak 19 urte beteko ditu aurten, eta aste honetan lortu du karneta

Eneida C. M. eta Erkuden R. B.
UHARTE ARAKIL

1 Zergatik erabaki zenuen gidabaimena ateratzea?

Azkenean, herri txiki batean bizi zarenean edozer gauzatarako kotxea behar duzu. Kotxearekin ez duzu beste pertsona baten menpe egon behar hara eta hona joateko. Nik nahi dudana tokietara lasaiago joateko nahi nuen karneta.

2 Aurretik gidatzearen eta kotxearen inguruko zerbait bazenekien?

Ez neukan ideiarik. Zeretik hasi naiz. Gainera, ni nahiko beldur nintzen eta irakasle batekin lasaiago joango nintzela uste nuen. Orain arte kopilotu izatera mugatu naiz.

3 Non jaso dituzu klaseak?

Nire lagunak Irurtzongo autoeskolan ari ziren eta oso pozik zeudela esan zidaten; ikasten ari zirela. Irurtzuna joan nintzen.

Praktiken lehenengo klasea Sakanan barna egin genuen, kotxea lasaiago ezagutzeko eta gero egunero Iruñera joaten ginen.

4 Nolakoa da gidabaimena ateratzeko prozesua?

Egoera normal batean aste batean zehar klaseak ematen dituzte eta han bertan emandako gaiaren inguruko testak egiten dituzte. Gero prest daudenean azterketa teorikora aurkezten dira.

5 Eta nolakoa izan da zure esperientzia?

Konfinamenduaren ondoren eman nuen izena, eta neurriak direla eta ezin zenez klasea batean egon, online egin dugu. Egunero esteka bat bidaltzen zuten eta bertan sartzen ginen. Irakasleak power point batekin pantaila elkarbanatzen zuen eta hizketan azaltzen zuen. Bakoitzak bere etxean entzuten genuen. Testak ere bakoitzak bere kabuz egiten zituen. Irakasleari galderak egiten egon beharrean,

bakoitzak bere kabuz egin behar genituen.

6 Beraz, lehenengo konfinamenduaren ondoren, harremanak online izaten jarraitu zuen?

Bai, eta nik uste horrela jarraitzen duela.

7 Azterketa teorikoa nola egin duzue?

Azterketa Iruñean egin genuen, eta aretoaren edukiaren erdia sartu behar zen. Eskularruekin egin behar izan genuen azterketa, badaezpada. Maskara jantzita, noski.

8 Zenbat luzatu zaizu prozesua?

Udan eman nuen izaena eta irailean azterketa teorikoa egin nuen. Bi hilabete horietan munda gelditu zenez, eta aurretik praktikoa egiteko itxaron zerrenda zegoenez, ilara handitu da. Orduan, bi hilabete horietako jendea hor gelditu zen geldirik. Gainera, jende askok konfinamendua baliatu du teorikoa

ateratzeko, beraz, lortzeko orduan... ataskuak jarraitzen du. Bi edo hiru hilabete itxoiten egon nintzen. Kanpoan ikasten dudanez ere, kotxea ongi ezagutzeko klaseak jarraian eman nahi nituen, eta horregatik eguberrietako oporretara arte itxoin nuen. Azkenean, ondo moldatu gara, eta lortu dugu.

9 Azterketa praktikoa egin berri duzu, nolakoa izan da?

Azterketa banaka egiten da, irakaslea, aztertzailea eta hirurak joaten gara. Leku berdinean hasi eta bukatzen da, eta ikasle batetik bestera irakasleak eserlekua eta bolantea garbitu behar ditu. Maskara jantzita eramanez behar da eta gel hidroalkoholikoarekin eskuak

garbitu. Azterketak 20 minutu inguru iraun zuen, eta bukatzean atea irekita utzi behar da ere.

10 Koronabirusaren aurretiko egoerarekin, aldea badago?

Orain zailagoa da. Egoera normal batean atzean beste lagun bat joan daiteke, eta horrek lasaitasun gehiago ematen du. Bakarka irakaslearekin eta aztertzailearekin bakarrik, maskara jantzita... Ez da erraza.

11 Galdera garrantzitsu bat, kotxea baduzu?

Etxean kotxea badugu; ez da nire izango baina erabili ahalko dut. Txandaka. Nafarroatik ezin garenez atera, pixkanaka ohitura hartzen joateko.



**ZURE ERROTULU, TOLDO ETA
IBILGAILU KOMERTZIALAK**

EGUNERATU*

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA

619 821 436 | info@gkomunikazioa.eus | Foru plaza, 23-1. Altsasu

*Euskaraz Jarriz gero, Sakanako Mankomunitateak diruz laguntzen du